



# ELKARBIZITZAREN ERREGELAMENDUA

## LEKAROZ BHI



1. Aitzin solasa.	1
2. Oinarrizko araudia	1
3. Ikasleen eskubide eta eginbeharren printzipio orokorrak.	3
4. Ikasleen eskubideak.	3
5. Ikasleen eginbeharrak.	4
6. Familien inplikazioa eta konpromisoa.	4
7. Elkarbizitza -arauak.	4
7.1. Institutuko arauak.	5
7.2. Gelako arauak.	9
7.3. Elkarbizitza arauak betetzeko orientabideak.	10
7.4. Irakasleriarentzat funtzionamendu arauak.	11
7.5. Familien erantzunkizunak	14
8. Ikasleriaren elkarbizitza araudia.	15
8.1. Aplikazio eremua.	15
8.2. Prebentzio neurriak.	15
8.3. Elkarbizitzaren aurkako portaeretan hezkuntza neurriak aplikatzeko irizpideak.	17
8.4. Hezkuntzako bitartekaritza.	17
8.5. Elkarbizitzaren aurkako portaerak.	18
8.6. Elkarbizitzarako bereziki kaltegarriak diren portaerak.	22
8.6.1. Elkarbizitzarako bereziki kaltegarriak diren portaeretan kautelazko neurriak.	26
8.6.2. Elkarbizitzarako bereziki kaltegarriak diren portaeretan hezkuntza neurriak aplikatzeko ohiko prozedura.	27
8.6.3. Elkarbizitzarako bereziki kaltegarriak diren portaeretan hezkuntza neurriak aplikatzeko prozedura adostua.	29
8.6.4. Elkarbizitzarako bereziki kaltegarriak diren portaeretan hezkuntza neurriak aplikatzeko prozedura adostu zuzena.	30
8.7. Elkarbizitzarako konpromisoak.	30
9. Ikasleak eskolara ez joateko taldeko hartutako erabakiak.	31
10. Ikasleriaren antolakuntza.	32
10.1. Klaseko ordezkarien eginkizunak.	32
10.2. Klaseko ordezkariak, noiz eta nola hautatu.	32
10.3. Ordezkarien Batzarra: Eraketa, ordezkaritza eta eginkizunak.	32
10.4. Ikasleen ordezkaritza Institutuko Eskola Kontseiluan.	33
10.5. Ikasleen elkarteak.	33
10.6. Ikasleen bilkurak Institutuan.	33
11. Familientzako elkarbizitza araudia	34
12. Elkarbizitzaren Batzordea.	35
13. Elkarbizitzaren irakasle arduradunak.	36

## 1. Aitzin solasa.

Elkarren ondoan bizitzen irakastea eta ikastea, elkarrekin bizitzen ikastea, hezkuntzaren helburu funtsezkoenetako bat izateaz gainera, egungo hezkuntza sistemen eginkizun nagusietako bat da. Ikaskuntza hori baliotsua da berez, eta ezinbestekoa, gizarte demokratikoa, solidarioa, kohesionatua, kritikoa eta baketsua sendotu nahi badugu.

## 2. Oinarrizko araudia.

57/2014 FORU DEKRETUA, uztailare 30koa, Nafarroako Foru Komunitateko unibertsitateaz kanpoko ikastetxe publiko eta pribatu itunduetako ikasleen eskubide eta eginbarrei eta ikastetxe horietako elkarbizitzari buruzkoa.

## Dekretuaren egitura

KAPITULUA	ARTIKULUA	
I. XEDAPEN OROKORRAK	1	Xedea eta aplikazio-esparrua
	2	Oinarrizko printzipioak
II. IKASLEEN ESKUBIDEAK ETA BETEBEHARRAK	3	Ikasleen eskubideen eta betebeharren printzipio orokorrak
	4	Ikasleen eskubideak
	5	Ikasleen betebeharrak
III. IKASTETXEETAKO BIZIKIDETZARI BURUZKO ARAUAK	6	Bizikidetzaren plana
	7	Prebentzio-neurriak
	8	Bitartekotza, hezteko tresna eta gatazkak konpontzeko metodo
	9	Bizikidetzarako konpromisoak
10	Bizikidetzaren araudia	
	11	Zuzendu daitezkeen jokoak
IV. BIZIKIDETZA NAHASTEN DUTEN JOKAERAK ZUZENTZEKO PRINTZIBIO OROKORRAK	12	Neurriak hartzeko irizpideak
	13	Egindako kalteak konpontzea
V. BIZIKIDETZAREN KONTRAKO JOKAERAK ETA HEZKUNTZA-ARLOKO NEURRIAK HARTZEA	14	Bizikidetzaren kontrako jokoak
	15	Bizikidetzaren kontrako jokoak daudenean hartu beharreko hezkuntza-arloko neurriak
	16	Bizikidetzaren kontrako jokoak daudenean hezkuntza-arloko neurriak hartzeko prozedura
VI. BIZIKIDETZARI KALTE LARRIA EGITEN DIOTEN JOKAERAK ETA HEZKUNTZA-ARLOKO NEURRIAK HARTZEA	17	Bizikidetzari kalte larria egiten dioten jokoak
	18	Aringarriak eta larrigarriak
	19	Bizikidetzari kalte larria egiten dioten jokoak daudenean hartu beharreko hezkuntza-arloko neurriak

KAPITULUA	ARTIKULUA	
	20	Bizikidetzari kalte larria egiten dioten jokoak daudenean hezkuntza-arloko neurriak hartzeko prozedura arrunta
	21	Alegazioak aurkezten direnean prozedura arruntarekin jarraitzea eta prozedura ebaztea
	22	Erreklamazioak
	23	Prozedura hitzartua
24	Dokumentazioa artxibatzea eta erregistroko oharpenak deuseztatzea	
VII. FAMILIEK SEME-ALABEN HEZKUNTZA-PROZESUAN PARTE HARTZEA ESKOLAKO ESPARRUAN	25	Familien parte-hartzea eta konpromisoa
	26	Gurasoen edo legezko ordezkarien eskubideak
	27	Gurasoen edo legezko ordezkarien erantzukizunak
XEDAPEN GEHIGARRIAK	1	Eskola Kontseiluaren eginkizunak delegatzea
	2	Eskolara ez joatea eta azken ebaluazioa
	3	DBHko 3. mailatik aurrera eskolara ez joateko eskubidea
	4	Erantzukizun soziala
	5	Erantzukizun penala
	6	Erantzukizun zibila
	7	Matrikula indargabetzea
XEDAPEN IRAGANKORRAK		Prozedurak ebaztea
XEDAPEN INDARGABETZAILEAK		Araudia indargabetzea
AZKEN XEDAPENAK	1	Araudiaren garapena
	2	Bizikidetzaren plana
	3	Indarrean sartzea

- 204/2010 FORU AGINDUA, abenduaren 16koa, Hezkuntzako kontseilariak emana, Nafarroako Foru Komunitateko unibertsitatez kanpoko ikastetxe publikoetako eta pribatu itunduetako bizikidetza arautzen duena.

**Foru Aginduaren egitura:**

KAPITULUA	ARTIKULUA	
I. XEDAPEN OROKORRAK.	1	Xedea.
	2	Aplikazio eremua.
	3	Helburuak.
II. BIZIKIDETZA KOORDINATZEKO ORGANOAK.	4	Bizikidetza koordinatzeke organoak.
	5	Ikastetxeko bizikidetza batzordea. Osaera eta eginkizunak.
	6	Ikastetxeko bizikidetzaren arduraduna.
	7	Hezkuntzako Ikuskapen Zerbitzuko bizikidetza eremua.
	8	Hezkuntza Departamentuaren bizikidetzarako aholkularitza. Osaera eta eginkizunak.
III. BIZIKIDETZA PLANA.	9	Printzipio orokorrak.
	10	Bizikidetza planaren helburuak.
	11	Bizikidetza planaren edukiak.
	12	Bizikidetza planaren urteko zehaztapena eta memoria.
	13	Bizikidetzarako erregelamendua.
	14	Elkarren arteko bizikidetza planak.
	15	Zer egin eskolako jazarpenaren kasuen aurrean.
	16	Zer egin genero-indarkeriaren aurreko egoeretan, hezkuntza eremuan.
	17	Zer egin ikastetxean zerbitzua ematen duten langileen aurkako indarkeria egoeretan.
	18	Zer egin adingabeak indarkeria egoerak eta tratu txarrak jasotzen dituztenean edo eskolatu gabe daudenean.
IV. BITARTEKOTZA, GATAZKAK KONPONTZEKO HEZKUNTZA PROZESUA, ETA BIZIKIDETZARAKO KONPROMISOAK.	19	Hezkuntza arloko bitartekotza.
	20	Bitartekotzaren printzipioak.
	21	Bitartekotzaren prozesua eta ondorioak.
	22	Bitartekarien prestakuntza.
	23	Bitartekotza programa ezartzea.
	24	Bizikidetzarako konpromisoak.
XEDAPEN GEHIGARRIAK-	1 <sup>a</sup>	Ikastetxeetako eta Nafarroako Foru Komunitateko bizikidetzaren egoerari buruzko azterlanak eta ebaluazioak.
	2 <sup>a</sup>	Irakasleen prestakuntza.
XEDAPEN INDARGABETZAILEAK.	Ba	Indargabetzea.

### **3. Ikasleen eskubide eta eginbeharren printzipio orokorrak.**

---

1. Ikasle guztiek eskubide eta eginbehar berberak dituzte. Ezberdintasun bakarrak adinaren arabera zehaztutako batzuk izan daitezke.
2. Eskolatzaldian, ikaslea bere eginbeharrez arduratuko da, erantzukizunez, eta bere eskubideak ezagutu eta erabiltzeko orduan, beste pertsonak errespetatu beharko ditu.
3. Espainiako Konstituzioan eta Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko abuztuaren 10eko 13/1 982 Lege Organikoan ezarritako balio eta printzipioetan hezteko, ikasleek arau horiek ezagutzeko eskubidea eta errespetatzeko beharra dute.
4. Eskubide bat erabiltzeak, banaka edo taldeka, berarekin dakar besteen eskubideak errespetatu beharra.
5. Ikastetxeko zuzendaritzak, irakasleek eta eskola elkarteko gainerako kideek bermatu behar dute eskubide eta eginbehar horiek testuinguru egokian erabiltzen direla.

### **4. Ikasleen eskubideak.**

---

47/2010 Foru Dekretuaren 4. artikuluan zehazten diren eskubideak:

- a. Funtsezko eskubide eta askatasunen errespetuan eta elkarbizitzaren printzipio demokratikoetan oinarritutako prestakuntza jasotzeko eskubidea.
- b. Osoko prestakuntza jasotzeko eskubidea, bere nortasuna erabat garatzen laguntzen duena.
- c. Errespetatua izateko eskubidea. Ikasleek eskubidea dute beren nortasuna, osotasuna eta duintasun pertsonala errespetatua izateko, baita beren kontzientzia askatasuna eta beren sinesmen erlijioso eta moralak ere, eskubide horiek Nazio Batuen Biltzar Orokorrak 1948ko abenduaren 10ean hartutako 217 A (III) Ebazpenaren bidez onartu zen Giza Eskubideen Deklarazio Unibertsalean eta Espainiako Konstituzioan aitortuak baitaude.
- d. Objektibotasunez baloratua izateko eskubidea. Ikasleek beren dedikazioa, ahalegina eta errendimendua objektibotasunez baloratuak izateko eskubidea dute. Ikasleek, eta hala badagokie gurasoek edo legezko ordezkariak, erreklamazioak aurkezten ahal dituzte kalifikazio eta hartutako erabakien gainean, hala ebaluazio partzialetan nola azken ebaluazioan, zuzendaritzara idatzi bat aurkeztuz.
- e. Ikastetxeko bizitzan parte hartzeko eskubidea. Ikasle guztiek ikastetxeko bizitzan parte hartzeko eskubidea dute, dela banaka dela taldeka, ikastetxeak ezartzen dituen baldintzetan.
- f. Denek aukera berdina edukiz hezia izateko eta babes soziala izateko eskubidea. Ikasle guztiek babes sozialerako, aukera berdintasunerako eta hezkuntza eremuan sartzeko eskubidea dute, indarreko lege esparruaren barruan.
- g. Ikasle guztiek beren osasuna babesteko eta sustatzeko eskubidea dute.
- h. Jasotzen den hezkuntzan, helburuen artean emakumezkoen eta gizonezkoen eskubideen eta aukeren berdintasuna sartzeko eskubidea.

## 5. Ikasleen eginbeharrak.

---

47/2010 Foru Dekretuaren 5. artikuluan zehazten diren eginbeharrak:

- a. Ikastea, ikasleen oinarritzko eginbeharra baita.
- b. Irakasleen eta zuzendaritza taldearen hezkuntza lana eta agintea errespetatzea eta eskola elkartekoak diren edo haren zerbitzura jarduten duten beste eragile batzuen oharrei kasu egitea.
- c. Ikastetxeko elkarbizitza hobetzen eta, ikasgelan eta ikastetxean, ikasketetarako giro egokia lortzen parte hartzea eta modu positiboan laguntzea.
- d. Pertsonak errespetatzea.
- e. Ikastetxera behar bezala jantzita eta norberaren higieena zainduta joatea.
- f. Ikastetxeko instalazioak, ekipamendua, altzariak eta materialak zaintzea eta egoki erabiltzea, hala nola ikastetxearen inguruetakoak eta eskola garraioetakoak.

## 6. Familien inplikazioa eta konpromisoa.

---

Beren seme-alaben hezkuntzaren arduradun nagusiak diren aldetik, aitei, amei edo legezko ordezkariari dagokie behar diren neurriak hartzea, behar den laguntza eskatzea eta ikastetxeari laguntzea hezkuntza prozesua egoki joan dadin. Gainera, beren seme-alabak eskoletara eta programatzen diren jardueretara joatearen ardura izanen dute, eta baliabide guztiak jarriko dituzte etxean estudiatu eta irakasleek agintzen dituzten etxeko lan guztiak egin ditzaten.

Bere seme-alabei buruzko informazioa (notak, etorrera, ...) eskuragai dute EDUCA programa informatikoan.

## 7. Elkarbizitza-arauak.

---

Ikasleen eskubide eta betebeharrak zertzen dituzte.

Elkarbizitza arauak jarrerak erregulatzen laguntzen dute eta zehazki deskribatzen dituzte praktikan jarri beharreko ekintzak. Taldearen kohesioa, eskortzuen koordinazioa eta taldekako helburuak lortzen laguntzen dute.

Azken finean, Institutuaren helburu, betebeharrak eta Eskola Komunitatearen kide eta gauzekiko errepestua bermatzeko, denek bete beharreko aginduak, arauak, jokaera eta jarrera pautak dira elkarbizitza arauak.

Elkarbizitzarako ezinbertzekoak diren heinean, Eskola Komunitate osoak Institutu eta gelako arauak ezagutu behar ditu. Beraz, jakitera eman behar dira bai arauak bai egon daitezkeen zuzenketak. Lan horretan garrantzizkoa da tutorea eta irakas taldearen lana, irakasleen koordinazioa, eta Institutuak familiekin duen harremana.

**7.1. Institutuko arauak.**

Institutuko arau orokorrak eguneroko zereginak erregulatzen dituzte. Komunitate osoak onartu eta eskola eremu osoan nahita nahiez bete behar dira.

Ikasturte hasieran Eskola Komunitate osoari jakinaraziko zaizkio: irakasle eta ez irakasleei ikasturte hasierako bileretan, ikasleei tutoritzako lehenengo saioetan eta familiei ikasturte hasierako taldeko bileretan.

Irakasle eta ez irakasleek arauak betetzea zainduko dute. Edozein arau-hauste elkarbizitzaren aurkako portaeratzat hartuko da.

INSTITUTURA ETORTZEA	
<b>1.ARAUA</b>	<ol style="list-style-type: none"> <li>1. Klasera etortzea derrigorrezkoa da matrikulatuta dauden ikasle guztientzat, ikasle eta familien ardura izanik. Ez etorrerak justifikatu behar zaizkio tutoreari.</li> <li>2. Irakasleek, bere ordutegia eta lan eginbeharrak betez ikasleriaren ardura hartuko dute eskola ordutegiaren barruan ikastetxean dauden bitartean.</li> <li>3. Ez etortzea justifikatzeko familiek modu egokian arrazonatu beharko dute. Familiek egun osoko ez etortzeak eta eskola ordutegiaren hasiera edota bukaerarekin bat datozenak soilik justifikatzen ahal dituzte. Egun osokoak ez diren hutsegiteak agiri ofizialekin justifikatu behar dira. Adin nagusiko ikasleek agiri ofizialak erabiliz justifika dezakete ez etortzea. Azterketa egunetan gurasoek ezingo dituzte egun osoak ez diren ez-etorrerak justifikatu.</li> <li>4. Eguneko azken eskola saioaren bukaeran edo beranduenik biharamunean irakasleriak ikasleen ez etortzeak EDUCA programan erregistratu beharko ditu</li> <li>5. Ez etortze eta beraien justifikazioen kontrola tutoreak egingen du.</li> <li>6. DBHko 3.mailatik aurrera, ikasleek eskolara taldeka ez joateko erabakia hartzeko prozedura 9. atalean biltzen da.</li> </ol>
	<p><i>Orokorrean ez etortzeen justifikazioak idatziz egin beharko dira eta ez etortzearen hurrengo egunean ekarriko beharko dira. Horretarako erabiltzen den eredu erabil daiteke. Hala ere, tutorearen esku gelditzen da ahozko justifikazioak onartzea. Ez etortzea azterketa egunean bada, ez zaio azterketa derrigorrez errepikatu beharko.</i></p>

PUNTUALTASUNA.	
<b>2.ARAUA</b>	<ol style="list-style-type: none"> <li>1. Puntualtasuna mantendu behar da bai hasieran bai bukaeran. Irakasleak ezin du ikasleen irteera baimendu txirrina jo arte. Hau bete ezean gerta daitekeen edozerren arduraduna irakaslea da.</li> </ol>

## ZENBAIT LEKUTAN EGOTEA

## 3.ARAUA

1. Goizeko 8.30etako klaseak hasi aurretik ikasleak eraikuntzaren kanpoko aldean egonen dira txirrina jo arte. Salbuespen gisa barneko aldean badaude jarrera egokia mantendu behar dute. DBH 1 eta 2ko ikasleek, 8tik 8.30etara zaintza lanak betetzen dituzten irakasleen aginduak jarraituko dituzte.
2. Ikasleek ezin dute gelatik kanpo egon klase orduetan, ez pasabideetan (irakasleren batek neurri zuzentzaile gisara erabaki hori hartu ez badu), ez bertze lekuetan. Ikasleek bere irakaslearekin gela barruan egon behar dute. Patioan edo kafetegian, irakasgairan bat gaindututa edo baliozkotua duen 2. batxilergo edo heziketa zikloko ikasleak bakarrik egon daitezke.
3. Atsedendietan ikasleak ezin dira egon ez geletan ez pasabideetan eraikuntzaren beheko solairua salbu. Irakasleek gelak giltzatu beharko dituzte eta bakarren bat irekita geldituz gero zaintzako irakasleek itxiko dituzte.
4. Komunetan biltzea edo jostetarako erabiltzea debekatua dago.
5. Liburutegian irakasle baten ardurapean bakarrik egon daiteke.
6. Derrigorrezkoa da irakasle bat zaintza gelan egotea beti, bai klase orduetan, bai atsedendietan. Zaintza gelan ere gelako elkarbizitza arauak bete behar dira.
7. Ikasleak ezin dira sartu ez Irakasle gelan ez Bilera gelan, hauek irakasleen erabilpenerako bakarrik baitira. Ohar edo lanaren bat irakasleei helarazteko irakasle edo atezainen bati eman, hauek dagokion kasilerioan uzteko. Ikasleak sar daitezke Bista gelan edo Departamentu batean irakasle batekin joanez gero
8. DBHko ikasleak ezin dira eskola eremutik atera eskola jardunaldi osoan.
9. Taillerretan, laborategietan eta gela berezietan ezingo da ikaslerik egon irakasle arduradunik gabe. Areto hauetan dauden pertsonen derrigorrez jarraituko dituzte lekuan lekuko segurtasun neurriak.

## JARDUERA OSAGARRIAK ETA ESKOLAZ KANPOKOAK.

## 4.ARAUA

1. Ikasle batek ikasturte osorako jarduera osagarrien baimen orokorra beteta eta sinatuta ekarri ez badu, ezin izanen du jarduera osagarrietan parte hartu. Ikasle batek eskolaz kanpoko jardueretan parte hartzeko dokumentazioa beteta eta sinatuta ekarri ez badu jarduera baino bi egun lehenago ezin izanen du jardueran parte hartu.
2. Jarduera osagarriak eta eskolaz kanpokoak antolatzeak jarraibideak ikasturte hasierako KPBn zehaztuko dira. Ikastetxeak antolatutako jarduera osagarri eta eskolaz kanpokoetan parte hartzen duten ikasleek hurrengoak betetzeko konpromisoa hartzen dute: irakasle arduradunaren jarraibideei kasu egin, programatutako jardueretan parte hartu, alkohola, tabakoa eta bertzelako drogak ez eraman eta ez kontsumitu, erabilitako garraioa eta instalakuntzak txukun mantendu, instalazioen erabiltzaileen atsedena errespetatu, bertzeen gauzak ez hartu, markatutako ordutegia puntualtasunez bete, hirietan taldeka ibili dokumentazioa, dirua eta balioko gauzak bereziki zainduz eta eragin daitezkeen kalteak ordaindu.

**ALKOHOLA, TABAKOA ETA BERTZE DROGEN KONTSUMOA**

<b>5.ARAUA</b>	<ol style="list-style-type: none"> <li>1. Alkohola, tabakoa eta bertze drogen salmenta, banaketa eta kontsumoa debekatua dago Ikastetxe osoko eremuan Eskola Komunitate osaoarentzat eta bertan egon daitezkeen edonorentzat.</li> <li>2. Modu berean, institutuan eta ikasleen artean alkohola, tabakoa, e.a., hauen markak, enpresa ekoizleak edo kontsumo lekuak aipatzen dituzten kartelak, gonbidapenak edo bertzelako publizitatea banatzea debeketatuta dago.</li> </ol>
----------------	---

**INSTITUTUKO INSTALAZIO ETA MATERIALEN ZAINKETA**

<b>6.ARAUA</b>	<ol style="list-style-type: none"> <li>1. Insitutuko instalazioak eta materialak bertan bizikide den edozeinen erabilpenerako dira. Beraz, zainketa eta mantenua Eskola Komunitatearen kide guztien ardurara da.</li> <li>2. Eskola Komunitatearen kide guztiak Institutua garbia eta ordenatua mantentzen ahalenginduko da.</li> <li>3. DBHko liburuen doakotasun programan parte hartzen duten ikasleek ikasturte hasieran honen inguruan emandako jarraibideak beteko dituzte.</li> </ol>
----------------	--

**PORTAERA GARRAIOAN**

<b>7.ARAUA</b>	<p>Institutuaren jarduerekin zerikusia duten joan-etorrietan ikasleek jarrera egokia edukiko dute, garraioaren funtzionamendua eta erabiltzaileen ongizatea bermatzeko. Honetarako bete beharrekoak hauek dira:</p> <ol style="list-style-type: none"> <li>1. Ez eragotzi ibilgailuaren gidaritza.</li> <li>2. Ikasle eta gidariaren arteko harremanak elkarrekiko errespetuan oinarrituko dira.</li> <li>3. Ibilbidean egon daitezkeen geldialdietan gidariak ezarritako ordena errespetatuko da, bai igotzeko bai jeisteko.</li> <li>4. Geltokietan tenorez ailegatu.</li> <li>5. Bidaian eserita egon eta dagonean segurtasun-uhala lotu. .</li> <li>6. Ikaskide gazteenei eta ezintasun fisikoren bat duenei lagundu.</li> <li>7. Ibilgailuetan ez bota ez paperik ez bertze hondakinik.</li> <li>8. Ibilgailuetan ezin da ez jan, ez edan ez erre.</li> <li>9. Esleitutako eserlekua zaindu, kalterik eragin gabe eta suerta daitezkeen gertaerak jakinarazi.</li> <li>10. Sirena soinua duen txirrina bereziak jo ondoren ateratzen da eskola garraioa, 15:05etan. Beraz klaseak 15.00etan amaituta nahiko denbora dago ikasleak tenorez ailagatzeko.</li> </ol>
----------------	--



<b>IRAGARKI TAULAK</b>	
<b>8.ARAU A</b>	<ol style="list-style-type: none"> <li>1. Ikastetxekoa ez den edonork , bertan informazioa eman edo zabaldu nahi baldin badu, Eskola Kontseiluaren baimena beharko du edo, halakorik izan ezean, ikastetxeko zuzendaraien idatzizko baimena. Kasu bietan, baimena eman dela idatziz jaso beharko da Ikastetxeko artxiboan. Horrez gain, Institutuko iragarki tauletan Ikastetxez kanpoko informazioa biltzen duten kartelak, oharrak, argazkiak, e.a. jarri nahi duen edozein pertsonak, elkartek edo Instituziok baimena eskatu beharko du Ikastetxeko Zuzendaritzan. Ezarritako kartelen, oharren, argazkien,... edukien arduraduna nor den jakin behar da.</li> <li>2. Iragarki tauletatik kanpo kartelak jartzea debekatua dago .</li> <li>3. Debeketatuta dago iragarki tauletan jartzea alkohola, tabakoa, e.a, hauen markak, enpresa ekoizleak edo kontsumo lekuak aipatzen dituzten kartelak, gonbidapenak edo bertzelako publizitatea.</li> <li>4. Modu berean, pertsonen nortasuna, osotasuna, duintasuna eta beren kontzientzia askatasuna eta sinesmena erlijioso eta moralak, eta orohar giza eskubideen deklarazio unibertsalean bildutakoa errespetatzen ez duen iragarkiak jartzea debekatuta dago.</li> <li>5. Institutuko sarrera nagusian eta zuzendaritza pasabidean dauden iragarki taulak Institutuko informazio ofiziala zabaltzeko bakarrik erabil daiteke.</li> <li>6. Kartela jartzen duenaren ardura da kentzea. Horrela ez bada jarri eta hilabete baten buruan kenduko dira.</li> <li>7. Geletako iragarki tauletan eskola jarduerekin zerikusia duen informazioa soilik jar daiteke.</li> </ol>
	<i>Baimenik gabe edo aurreko arauak betetzen ez dituen edozein ohar kenduko da.</i>

**7.2. Gelako arauak.**

Gelako arauak gelako iragarki taulan jarriko dira. Ikasturte hasieran tutoreak familiari emanen dio arautegi honen berri neurri zuzentzaileekin batera. Ikastetxeko gela guztietan nahitaez bete beharreko arau hauetaz gain tutoreak edo irakasle taldeak proposatuta bertze batzuk ere gehitzen ahal dira.

Irakasle taldeak eta tutoreak gelako arauak betezen direla zainduko dute. Atsedenaldi aurretik klasea duen irakasleak gela giltzatuko du bertan ikasleak ez gelditzeko. Era berean, eguneko azken klasea duenak aulkiak mahaien gainean jartzen dituztela eta gela txukun gelditzen dela konprobatuko du.

<b>GELAKO ARAUAK</b>
<ol style="list-style-type: none"> <li>1. Gela eseri tutoreak agindu bezala. Irakasle bakoitzak egokia ikusiz gero bere saioetan aldaketak egin ditzake.</li> <li>2. Isilik egon, modu egokian jarri eta klaseak arretaz jarraitu. Ez oihukatu, ez solastu bertzeen gainetik eta klasearen martxa arrunta ez galerazi.</li> <li>3. Irakasleak proposatutako lana egin, bere jarraibideak kontutan hartuz.</li> <li>4. Eskua altxatu eta irakasleari baimena eskatu hitzegiteko edo eserlekutik goratzeko.</li> <li>5. Txirrinak jotzen duenean itxaron irakasleak klasea bukatutzat eman arte.</li> <li>6. Pertsona guztiak errespetatzea. Eragozpenak ez sortzea, ez barregarri utzi, ez iraintzea, ez probokatzea, borrokatzea, ezta bertzeen gauzak bereganatzea ere.</li> <li>7. Gela garbia mantendu , argiak itzali, ateak eta leihoak itxi eta aulkiak mahai gainean jarri gelan azken klasea eman ondotik</li> <li>8. Gelako material, altzariak eta instalazioak behar bezala erabili. Ez pintatu eta ez marratu altzariak eta instalazioak eta ez jo ateak.</li> <li>9. Gelan ezin da ez jan eta ez edan.</li> <li>10. Klasea jarraitzeko beharrezkoa den materiala eta irakasleak agindutako etxeko lanak ekarri.</li> <li>11. Ikastetxera etortzeko janzkera egokia erabili.</li> <li>12. Mugikorra, MP3, MP4 eta antzekoak eskola ordutegian eta eskola eremuan erabiltzea debekatuta dago.</li> <li>13. Irakasleren bat tenorez ailegatuko ez balitz taldeko ikasleak gela barruan geldituko dira isiltasunean zaintzako irakaslea iritsi arte. Hamar minuturen ondotik inor agertuko ez balitz ikasle bat honen berri emanen du irakasle gelan, atezaindegian edo zuzendaritzan.</li> </ol>

**7.3. Elkarbizitza arauak betetzeko orientabideak.****ELKARBIZITZA-ARAUAK. Behar bezala betetzeko zenbait zehaztapen.**

**Institutu eta Gelako arauetan ezartzen denaz gain, beste hauek ere kontutan hartuko dira: Ikasteko interesa eta esfortzua erakutsi.**

Institutura egunero eta klase guztietara atsedean baldintza egokietan etortzea, etekin maximoa lortu ahal izateko.

**Pertsonak, ekipamendua eta instalazioak modu egokian tratatu.**

Bolumen egokian hitz egin.

Gauzak faborez eskatu eta zerbait jasotzerakoan eskerrak eman.

Gelara berandu iristen garenean, sartu baino lehen atea jo eta irakasleari baimena eskatu.

Solaskideari beti aurpegira begiratu, errespetuz eta modu lasaian.

Pertsona guztiak errespetuz tratatu, genero indarkeriaren aurkako jarrerak saihestuz.

Irakasleen errietaren aurrean azalpenak errespetuz eman, azken hitzarekin gelditzen tematu gabe.

Edozeinekin hitz egiterakoan bere izena erabili, goitzenak saihestuz.

Sakelako telefonoak, MP3 eta horrelakoak eskola ordutegian eta eskola eremuan ez erabili.

Jan eta edan soilik dagokion toki eta sasoietan.

Ikaskideen materialak errespetatu, soilik bere baimenarekin erabiliz.

Institutura garbi etorri, eta arropa egokiak ekarri

Ez etortzeak beti justifikatu, ikastetxean ezarritako prozedura jarraituz.

**Ikasgelan lan giro egokia lortzen lagundu.**

**Beti modu lasai eta baketsuan jokatu.**

Gatazkak elkarrizketaren bidez ebatzi, irainak, erantzun txarrak, zirikatzeak, mehatxuak, begirada arroak eta eraso fisikoak sahiestuz.

Besteen itxura fisikoari buruzko esamesa eta txantxa desegokiak ekidin..

Haserrealdiak, klaseko materiala eta altzariak gaizki tratatuz edo danbatekoen bidez adieraztea ekidin.

Gelako jardueretan parte hartu, txandak errespetatuz eta jarrera oldarkorrek ekidinez.

**Elkarbizitza arauak guztientzako eremuetan**

Korridore, atari eta eskailera leku batetik bestera joateko pasabideak dira, beraz, ezin da bertan egonean egon. Denen ardura izanen da leku hauetatik igarotzea ahalik eta errazen izatea, beraz ezingo da jolastu, oihukatu, txistu egin, bultzatu, etabar. Klase ordutan hauetan barna ibili behar baldin badugu ixilik eta beste klasetan daudenak molestatu gabe pasatuko gara. Denen ardura izanen da leku hauek garbi eta txukun mantentzea, zaborrak bota, tu egin eta paretak zikindu gabe. Denon ardura izanen da ere ate, su-itxalgailuak, iragarki-tabloi, eta abarrak modu egokian mantentzea.

Galerazita dago ikastetxeko edozein eremutan erretzea, alkohola duten edariak eta bertze edozein drogak kontsumitzea.

Irakasle arduradun batekin ez bada klase orduetan ezin da ez patioan ez lorategian egon. Hauek garbi mantentzen saiatuko gara, zakarrontziak eta eremu berdeak behar bezala erabiliz.

Ikasleria atsedenaldira soilik sartu ahal izanen da kafetegira. 2. batxilergo eta jarduera fisikoetako heziketa zizkloko arlo guztietan matrikulatuta ez dagoen ikasleria salbu. Kontsumizioak eskatzerakoan txanda errespetatuko da, garrasi egin gabe eta bertako langileengana modu egokian zuzenduz.

**7.4. Irakasleriarentzat funtzionamendu arauak.****IRAKASLERIARENTZAT ARAUAK. 1.- ETORRERA.**

Ikastetxe publikoetako irakasleen lanaldia eta ordutegia erregulatzen duen 225/1998 FDren 3. artikulua (94 NAO, 1998ko abuztuaren 7koa):

4. Irakasleek, ahalik eta lasterren, bere irakaslanean gertatzen den edozein hutsegite edo atzerapenaren berri emanen dio ikastetxeari.

5. Irakasleak behartuta daude hutsegitearen justifikagiriak zuzendariari aurkeztera, honek eskatu beharrik gabe.

- I. Aurreikusita dagoen hutsegite baten kasuan irakasleak Ikasketa Burutzan jakinarazi behar du, horretarako dagoen dokumentua osatuz eta sinatuz. Aldi berean ikasleentzat lana utziko du, hutsegitea jakinaraztean lana uzteko dokumentua emanaz.
- II. Aurreikusita ez dagoen hutsegite baten kasuan irakasleak, ahal bezain laster, ez etortzea edo atzerapena jakinaraziko du, ahal bada Institutura telefonoz deituta.
- III. Hutsegitearen ondoko lan egunean ez etortzearen egiaztagiri ofiziala Ikasketa burutzan entregatu beharko du.
- IV. Gaixotasun bajak direnean, irakasleak, hurrengo egunean, bajaren partea Institutura igorriko du, Zuzendaritza Taldeak jakinaren gainean egon eta Giza Baliabide Zerbitzura behar bezala tramitatzeko.

**IRAKASLERIARENTZAT ARAUAK. 2.- PUNTUALTASUNA.**

Irakasle orok bere lan ordutegia errespetatu eta zorrotz bete egin behar du, are gehiago ikasleak Institutuan dauden bitartean irakasleen ardurapean daudela jakinda.

Klase saioak eta zaintzak hasi eta bukatu egiten dira txirrina soinuak jotzen duenean. Klase bat bertzearen atzetik edukita eta ikastetxetik alde batetik bertzera ailegatzeko denboran faltan lehentasuna eman beheko mailei, hau da bereziki irakasleak tenorez ailegatu DBHko 1. eta 2. mailako klaseetara.

Ikasleak ezin dira Ikastetxetik atera 15:00etako txirrinak jo arte. Autobusek 15:05etan dute ateratzeko ordua, beraz ikasleek 5 minutuko tartea dute autobusera tenorez ailegatzeko.

## IRAKASLERIARENTZAT ARAUAK. 3.- ZAINTZAK.

<p><b>3.1. KLASE SAIOETAN ZAINTZAK</b></p>	<p>Zaintzako irakaslearen eginkizun nagusiak hauek dira:</p> <p>a) Irakasleak huts egiteagatik edo beste edozein arrazoirengatik zaindaririk ez duten ikasleei kasu egitea.</p> <p>Irakasleren batek aurrez baldin badaki huts eginen duela, antolatutik utziko du ikasleek zer lan egin behar duten gelan, eta ikasketa-buruari emanen dio laneko plan hori, irakasle gelan eskuragarri dauden ereduak erabiliz.</p> <p>Ikasleek ez badute inolako lan berezirik, edo hala hitzartzen badu huts egiten duen irakasleak zaintzako irakaslearekin, zaintzako irakasleak zilegi izanen du ordu hori ikasleei bere gai propioa emateko erabiltzea, betiere ikasketa-buruaren baimena baldin badu, eta gainerako ordutegia aldatzen ez bada.</p> <p>b) Korridoreetan ordena zaintzea eta, oro har, ikasleek gelaz kanpo duten portaera. Horrek ez du erran nahi bertze irakasleek eginkizun hori bete behar ez dutenik.</p> <p>c) Bere zaintza aldian sortzen diren gorabehera guztiak konpontzea, baita ikastetxeko norbait mediku beharrean gertatuz gero hartarako dilijentziak egitea ere, eta ikasketa-burua lehenbailehen jakinaren gainean jartzea.</p> <p>d) Ikasketa-burutzak zaintza orduei buruzko parte bat prestatuko du egunero, eta Hezkuntzako Ikuskapen Zerbitzuaren eskura egonen da beti. Gutxienez honako datuak izanen ditu:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>Irakasleen hutsegite eta atzerapenak.</li> <li>Ikastetxeko edozein egoitzatan izan diren gorabeherak.</li> <li>Gertatu diren istripuak.</li> <li>Zaintzako irakasleen sinadurak.</li> </ul>	<p><u>Prozedura.</u></p> <p>Ikasketa Burutzak irakasle gelaren iragarki taulan egunero zaintza partea eta zaintzako irakasleen sinadura dokumentuak jarriko ditu.</p> <p>Saio horretan zaintzan dauden irakasleen artean lan hauek banatuko dituzte:</p> <p>Zaintza partean dauden irakasleen hutsegiteak bete behar dira.</p> <p>Irakasle batek zaintza gelara joan behar du. Bertan, 2. Batxilergoko zenbait arlotan matrikulatuta ez dauden ikasleak eta behar bada gelatik kanporatutako ikasleak egonen dira. Ikasle guztien izena apuntatu behar da hango partean. Gela honetan, ikasleek bertze geletan bezala egon behar dute, hau da, ezin dute jan, edan, musika aditu, telefonoa erabili,...</p> <p>Pasabideetan isiltasuna bermatzea. Horretarako zaintza irakasleek buelta bat eman behar dute ikasle guztiak bere irakasleekin daudela ziurtatzeko. Horrela ez bada, ordezkapen lana egin eta Ikasketa Burutzan jakinarazi. Bidenabar gela hutsak itxi.</p> <p>Zaintza aldian sortzen diren gorabehera guztiak konpontzea, baita ikastetxeko norbait mediku beharrean gertatuz gero hartarako dilijentziak egitea ere, eta ikasketa burua lehenbailehen jakinaren gainean jartzea. Irakasleen kasuan 15 urte baino gazteagokoei Elizondoko pediatria dagokie, bertzeak Irurritako osasun zentroa. Hau modu egokian egin ahal izateko zaintza irakasleren bat libre egonez gero irakasle gelan gelditu, edo sinadura paperan adierazi non aurkitu.</p> <p>Zaintza sinadura dokumentuan irakasleak sinatu eta adierazi zein taldetan egin den ordezkapen lana.</p>
--	--	--

<b>IRAKASLERIARENTZAT ARAUAK. 3.- ZAINZAK.</b>	
<b>3.2. ATSEDENALDIETAKO ZAINZAK</b>	<p>Bertze irakasleek eginkizun hauek bete behar badituzte ere, atsedernaldi bakoitzean zaintzan dauden irakasleen artean lan hauek banatuko dituzte:</p> <p>Irakasle batek zaintza gelara joan behar du. Bertan dauden ikasleen ardura hartu eta beraien izenak bertan dagoen partean erregistratu.</p> <p>Irakasle batek gelak itxi, ikasleak beheko solairura bidali eta kanpora atera daitezen gonbidatuko ditu. Jarrera ez egokiak zuzendu eta, behar izanez gero, GOOGLE DRIVEn eskuragarri dagoen gertaera orria bete.</p> <p>Irakasle batek pista gorriaren zaintza eginen du. Jarrera ez egokiak zuzendu eta, behar izanez gero, GOOGLE DRIVEn eskuragarri dagoen gertaera orria bete.</p> <p>Irakasleek ardura hauek izango dituzte: atek itxi eta Kanpoko instalazioetan ibilbidea egin eta bereziki jarrera ez egokiak kontrolatu. Horretarako ikasleak egoten diren lekuetan irakasleek zaintza lana egin behar dute eta, behar izanez gero, GOOGLE DRIVEn eskuragarri dagoen gertaera orria bete.</p>
<b>3.3. GOIZEKO ZAINZAK</b>	<p><b><u>Goizean klaseak hasi aitzineko zaintzak.</u></b></p> <p>Goizeko 08:00etatik 08:30etara, ikasleak Institutura ailegatu eta klaseak hasi arte, bi irakasle daude zaintza egiten DBH 1 eta 2ko pasilloan ikasleen jarrera egokia bermatzeko.</p>
<b>3.4. JARDUERA OSAGARRIETAN ETA ESKOLAZ KANPOKOETAN ZAINZAK</b>	<p>Jarduera osagarriak eta eskolaz kanpokoak irakasle gelako iragarki taulan hori koloreko paperetan jakinaraziko dira.</p> <p>Jardueretan parte hartzen duten irakasleek lana prestatu behar dute bertan gelditzen diren ikasleendako eta bezperan Ikasketa Burutzan utzi.</p> <p>Ikaslerik gabe gelditzen diren irakasleak beteko dituzte jarduera osagarriek eta eskolaz kanpokoek sortutako zainketak.</p>

**IRAKASLERIARENTZAT ARAUAK. 4.- EBALUAZIO SAIOAK.**

Ebaluazio saioen deialdiak irakasle gelako iragarki taulan eta GOOGLE DRIVEN jakinaraziko dira, talde bakoitzeko saioaren eguna eta ordua zehaztuz. Bileren garapen egokiak hasierako eta bukaerako ordutegia zorrotz betetzea eskatzen du.

Saioa aitzinetik behar bezala prestatzeko ezinbertzekoa da irakasleek gutxienez bi egun aurretik ikasleen kalifikazioak eta jarrerak eta ikasle bakoitzaren aipamenak EDUCAREN bitartez sartzea.

Saiora etortzea derrigorrezkoa da irakasleentzat eta lehenetsia du irakasleen bertze edozein jarduerekin. Saioaren hasieratik bukaera arte behar du irakasleak bileran egon, beraz ezin da alde egin “bere” ikasleekin bukatu denean, berriro ere solasgai izaten ahal direlako.

Bileran tutoreak ebaluazio txostena betetzeko behar duen informazioa jasoko du. Ebaluazio sesioan parte hartuko duen zuzendaritzaren ordezkariak etorrera aktaren sinaduraz arduratuko da.

**IRAKASLERIARENTZAT ARAUAK. 5.- IKASLEEN ERREKLAMAZIOAK ETA AGIRIEN ESKAERAK**

Ikasleek, edo haien gurasoek edo ordezkari legalek adin txikikoen kasuan, kalifikazioak eta horien inguruko erabakiak erreklama ditzakete. Ebaluazio partziala erreklamatu ahalko da noten boletina jaso eta hurrengo bost egun lektiboetan, zuzendaritzan erreklamazio idatzia aurkeztuz. Erreklamazioan ebaluatzeko erabili diren agirien kopiak eskatzen badira erreklamazioa aurkeztu eta bi egun lektiboetara ikastetxeko idazkaritzan eskuragarri izango dituzte 10 zentimo kopiako ordaindu beharko dutelarik. Zuzendaritzak erreklamazioa inplikaturako departamentura bideratuko du, non departamentu buruaren ardurapean bigarren zuzenketa bat egingen den bost egun lektiboko epean. Ebaluazio partzialen kasuetan erreklamazioaren bidea hemen akitzen da azken hitza departamentuak duelarik. Azken ebaluazioa erreklamatzeko bada, bai ohiko deialdian zein ezohiko deialdian, legeak agintzen duen protokoloa jarraituko da.

**IRAKASLERIARENTZAT ARAUAK. 6.- BERTZE LANAK.**

**Ateak itxi.** Irakasle guztiek atsedendia aitzinetik klasea duten aldiro edo ikasleak bertze batera joan behar dutela dakitenean gelako atea itxiko dute. Era berean departamentuak giltzatu hutsik gelditzen direnean. Zaintza irakasleek inor gabe dauden gela eta aretoen ateak itxiko dituzte, klase denboran eta atsedendietan.

**Sakelako telefonoa.** Inork, ez ikasle ez irakasle, ezin du sakelako telefonoa geletan erabili.

**Aparkalekua.** Institutuko sarreratik hurbilen dagoen aparkalekuaren aldetik ezin izando dira autoak mugitu autobusak joan arte. Saiatu aparkaleku erdian ez aparkatzen, eta lekurik ez badago eguneko azken saioa baino lehen ibilgailua autobusen trabatik kendu.

Zortzi egun naturaleko epea dute irakasleek ikasleen **azterketak** eta bertze gisako froga objektiboak zuzentzeko. Horrez gain irakasleen egin beharra da azterketa horiek klasean zuzentzea.

## **7.5. Familien erantzunkizunak**

### **FAMILIEN ERANTZUNKIZUNAK**

- a) Beren seme-alaben hezkuntza prozesuaren bilakaera ezagutzea, ikasketetara animatzea eta errendimendua hobetzeko parte hartze aktiboa izatea.
- b) Ikastetxearekin zuzeneko eta etengabeko harreman arina izatea eta erraztea.
- c) Irakasleen agintea eta ikastetxeko arauak errespetatzea eta beren seme-alabei hori errespetaraztea.
- d) Eskola komunitateko kide guztiek dagozkien eskubide eta eginbeharrak erabat erabili ahal izateko eta errespetua sustatzeko lanean laguntzea.
- e) Aparkalekuaren kudeaketan lagundu. Horretarako ezin izango dute institutuko aparkalekua erabili eskola garraioiko autobusen sarrera/irteeretan, beren seme-alabak ekarri eta eramateko Lekarozeko kanpua erabiliko dutelarik.

## **8. Ikasleriaren elkarbizitza araudia.**

### **8.1. Aplikazio eremua.**

Zuzendu beharreko portaerak izanen dira elkarbizitzarako arauak urratzen dituztenak, Elkarbizitzaren Erregelamenduan jasoak badaude, eta betiere:

- a) Eskola ordutegiaren eta eskola eremuaren barrenean jarduerak egin bitarte gertatzen badira.
- b) Eskola eremutik edo ordutegitik kanpora gertatzen badira ere, ikasleen eginbeharren eta eskubideen urraketarekin zuzeneko harremana baldin badute. Kasu honetan Institututik interbentzioa eginen da baldin eta ikasleak edota bere familiak horrela eskatzen badu.
- c) Ikastetxeak antolatutako jarduera osagarriak edo eskolaz kanpoko jarduerak egin bitarte gertatzen badira.
- d) Ikastetxeko zerbitzu osagarriak erabili bitarte gertatzen badira: eskola garraioa.

### **8.2. Prebentzio neurriak.**

1. Ikastetxean elkarbizitzarako giro egokia sustatzea, eguneroko eginkizunetan integratutako berariazko jarduketa batzuen bidez. Helburu hau lortzeko honako ekintza hauek planteatzen dira:
  - Elkarbizitza arauak hezkuntza komunitateko kide guztien artean hedatzea, bereziki ikasleen artean, gela bakoitzeko iragarki taulan ikasturte hasieratik arauak jarriz eta hiru hiletik behin behintzat tutoretzan lan saio bat hartarako emanaz.
  - Irakasleen zaintza lana, bereziki atsedendietako zaintzak eta goiza hasierakoak.
  - Elkarbizitzako irakasle arduradunak, irakasle talde batek, irakasleen klaustroak edota Institutuko Eskola Kontseiluak proposatuta antolatzen ohi diren egun kulturalak.
  - Modu orokorrean ikastetxean antolatzen diren jarduera osagarriak eta eskolaz kanpokoak.
2. Curriculum arloetako programazioetan behar diren edukiak eta trebetasunak garatzea, gizartean eta herritar gisa jarduteko gaitasuna eta norberaren autonomiarako eta ekimen pertsonalerako gaitasuna eskuratzen direla bermatzeko, hala nola balio demokratikoak eta pertsona guztien berdintasuna sustatzeko. Garapen hau zehazteko asmoz Institutuko Departamentu Didaktikoek afera landu eta ikastetxeko KPbn curriculum ofizialean ezarritako ondoko oinarrizko gaitasunak agertzen diren arloetan bereziki ebaluatzea adostu zen:
  - 5. oinarrizko gaitasuna, gaitasun soziala eta herritartasuna: Gizarte Zientziak, Erljioa, Etika, Musika eta Gorputz Hezkuntza.
  - 7. oinarrizko gaitasuna, autonomia eta ekimen pertsonala: arlo guztiak.



3. Gatazkak elkarrizketaren bidez eta bake bidez konpontzeko ikaskuntza planifikatzea, ikasleak ezagutzaren bidez prestatuz, hala nola heziketa emozionala, balioetan oinarritutako hezkuntza eta trebetasun sozialak landuz.  
Departamentu didaktikoen urteko programazio didaktikoetan neurri hau sartzea aholkatzea (KPB).
4. Elkarbizitzarako arauen kontrako portaerei aurrea hartzea, irakasleak, Elkarbizitza Batzordeko kideak eta Eskola Kontseiluko kideak trebatuz eta arlo horretan dituzten eginkizunak eta jarduketak zehaztuz. Hartara prebentzio neurri hauek zehazten dira:  
Elkarbizitza Plana eta Elkarbizitza Erregelamendua aurkezpen saioak, Orientatzailea zein irakasle tutoreen eskutik, DBHko 1. eta 2. mailako taldeetan lehenetsiz.  
Ikastetxeetan elkarbizitzarekin zerikusi zuzena duten jasotako prestakuntza jardueren berri ematea eta parte hartzera gonbidatzea (elkarbizitza arduradunak eta Zuzendaritza Taldea).
5. Ikastetxearen, familien eta prebentzio eta hezkuntza neurriak hartzeko eskumena duten erakunde publikoen arteko koordinazioa, batez ere ikasleen egoera familiarra, pertsonala edo bestelako bat dela kausa, elkarbizitzarako arauen kontrako jokabideak sor badaitezke.  
Instititutuko Orientatzailearen ardurapean ikastetxez kanpoko erakundeekin harremanetan jartzea, hurrenez hurren udal eta osasun etxeko gizarte langileekin eta bertze erakunde espezifikoeekin.  
Guraso Elkartek antolatzen ohi duen Gurasoen Eskola izeneko jardunean Elkarbizitzako aspektuak aurreikustea.
6. Tutoretza plana diseinatzea, bertan elkarbizitzari, trebetasun sozio-emozionalei eta balioetan oinarritutako hezkuntzari buruzko edukiak eta helburuak bilduz eta, oro har, gizabanakoen arteko eta taldeko harremanak indarkeriari aurrea hartzera eta gatazkak bake bidez konpontzera bideratzen dituzten ikaskizunak sartuz.  
DBH: Tutoretza plangintzaren helburu orokorretako bat Hezkuntza komunitatea osatzen dugun partaide guztion arteko harreman eta eskuartze egokiak bultzatzea den neurrian, eta hori lortzeko elkarbizitzarekin zerikusia duten gai hauek landuko dira, bertzeak bertze: ikasleen eskubide eta betebeharrak, arauak, hutsegiteak, hezkidetzak, indarkeriarekin zero tolerantzia, lagunak egin, komunikazio egokia, nola kontrolatu kideen presioa zeu izanez, bertzeekin nola konpondu zure burua saldu gabe, zure eskubideak baieztatu, heziketa afektibo sexuala eta osasuna eta norberaren zainketa eta elkarrenganako begirunea.  
Batxilergoa eta LHko zikloak: Aitzineko ikasturteetan landutakoa sendotzeaz gain Instititutuko funtzionamendu arauak, heziketa afektibo sexuala, norberaren zainketa eta jazarpenaren prebentzioa gaiak landuko dira, bertzeak bertze.
7. Ikasleak modu orekatuan taldekatzea, neska-mutilak, errepikatzaileak edota jarrera ez egokia duten ikasleak.
8. Tutoretza ekintzak honako hauek bermatuko ditu, gutxienez:  
Koordinazio horizontala; horretarako, irakasle taldeek behar adina bilera egingen dituzte, ebaluazio saioetarako aurreikusitakoez gain. Koordinazio horrek ikastetxeko zuzendaritzaren babes berezia izanen du.  
Ikasle bakoitzaren banakako tutoretza; tutorea gutxienez hiru hilean behin bilduko da ikasle bakoitzarekin, ibilbide pertsonala eta akademikoa aztertzeko.  
Gainditu gabeko irakasgaiak erreperatatzeko indartze planaren jarraipena, plana aplikatzeko arduraren duten irakasleekin koordinatuta.  
Hezkuntza premia bereziak dituzten ikasleentzako curriculum egokitzapenak prestatzeko eta haien jarraipena egiteko koordinazioa.  
Familiekin eta eskola komunitateko beste eragile batzuekin lankidetzan aritzea, horretarako ikasturtean gutxienez bi elkarrizketa edota bilerak eginez, eta egokitzat jotzen diren gainerako tresna guztiak direla medio.

**8.3. Elkarbizitzaren aurkako portaeretan hezkuntza neurriak aplikatzeko irizpideak.**

1. Irakasle guztiek, beren agintea erabiltzen dutenean, ikasteko behar den eskolako giro ona erraztu behar dute, eta horregatik, ikastetxeak antolatutako hezkuntza jarduerak egiten diren bitartean, elkarbizitzaren aurkakoak diren ikasleen portaerei aurrea hartu behar diete, eta ikasleei ohartarazi eta portaera zuzendu.
2. Zuzendu beharreko portaeretan aplikatu beharreko neurri guztiak egintzen erantzulea den ikaslearentzat hezigarriak izanen dira. Neurri horiek, gainera, ikasleen eskubideak errespetatzen direla bermatu beharko dute, eta erreferentzia elkarbizitza hobetzea izanen da. Arazoak eta elkarbizitzarako portaera ezegokiak sortu baino lehen neurri zuzentzaile hauek lantzeko prozesua Elkarbizitza Batzordeak abiatuko du.
3. Neurri horiek aplikatuz gero, ikasle guztiek eta, bidezkoa denean, aitak, amak edo legezko ordezkariak eskubidea izanen dute entzunak izateko eta beren burua defendatzeko alegazioak aurkezteko.
4. Nolanahi ere, honako alderdi hauek kontuan hartu beharko dira:
  - a) Neurriek ikasleen hezkuntza prozesuak aurrera segitzea bermatu beharko dute, haien prestakuntza akademikoa galarazi gabe.
  - b) Ez da osotasun fisikoaren eta duintasun pertsonalaren kontrako neurririk aplikatuko.
  - c) Aplikatzen diren neurriak ikaslearen portaerarekin proportzionalak izanen dira.
  - d) Neurriak aplikatzean ikaslearen adina eta egoera pertsonalak, familiarrak eta sozialak hartu beharko dira kontuan. Horretarako, irakasleek inguruabar horiei buruz behar duten informazioa biltzen ahalko dute eta, hala badagokio, familiari edo erakunde publiko eskudunei aholkatzen ahalko diete behar diren neurriak har ditzaten.
  - e) Aplikatzen den neurriarekin batera kalteen konponketa ere ezarriko da, batez ere kalte pertsonalak izan direnean.
5. Edozein hezkuntza neurri aplikatu aurretik, zilegi izanen da ohartarazpena, kargu-hartzea eta zuzentzeko errekerimendua egitea, ahoz eta/edo idatziz, baita portaera desegokiari eta haren ondorioei buruzko gogoeta bat ere. Ekipoak, materialak, jantziak edo gailuak eramateagatik edo behar bezala ez erabiltzeagatik aplikatzen diren hezkuntza neurriak alde batera utzita, ikasleei eskatzen ahalko zaie ikastetxeari emateko, haren esku egon daitezen eskolak bukatu arte edo ikasteak berak, gurasoek edo ikasleen ordezkariak jaso arte, ikastetxearen bizikidetzarako erregelamenduan ezarritakoaren arabera.
6. Neurri jakin bat aplikatzea egokia ote den erabakitzeko, irakasle arduradunek eta zuzendaritzak ondoko hauengana jotzen ahalko dute aholku eske: ikastetxeko orientatzailea, ikastetxeko Elkarbizitzaren Batzordea, ikastetxeko Eskola Kontseilua, Hezkuntza Departamentuko Elkarbizitzarako Aholkularitza, Hezkuntzako Ikuskatzailetza, Oinarrizko Gizarte Zerbitzuak eta Hezkuntza Departamentuko bizikidetzaren batzordea.
7. Neurrien izaera hezigarria indartzeko eta antzeko portaerak berriz agertzei aurrea hartzeko, neurriak aplikatu ondoren, ikastetxeko zuzendaritzak edota elkarbizitzarako arduradunek hala erabakitzen badute, ikaslearen, zuzendaritzaren eta zuzendaritzak berak egokitzen jotzen dituen pertsonen arteko elkarrizketak egiten ahalko dira.

**8.4. Eskolako bitartekaritza.**

Eskolako bitartekaritza gatazkak konpontzeko metodo bat da, non pertsona batek auzitan dauden bi pertsonaren edo gehiagoren artean parte hartzen duen, alderdi guztientzat egokia den akordio bat aurkitzen laguntzeko.

Bitartekaria inpartzialtasunez eta konfidentzialtasunez arituko da eta Institutuko Orientatzailea, Ikasketa Burutza edo irakasleak diren elkarbizitza arduradunen eskutik berariazko prestakuntza jasoko du. Ikasturte hasieran, behin klaseko ordezkariak hautatu eta Institutuko ordezkarien batzarra osatuta, bitartekari lanetan aritzeko behintzat ikasle bi proposatuko dira, lehentasuna emanez institutuko ikasleen batzar horren ordezkari, edo bestela lan horretarako prest agertzen den edozein ikasle.

Eskolako bitartekaritza, ahal den guztietan, eskola elkarte osatzen duten pertsonen arteko gatazken kudeaketan erabiliko da, hezkuntzako, prebentziorako eta gatazkak konpontzeko estrategia gisa. Institutuak gatazkak konpontzeko bitartekaritza eskaintzen du.

Bitartekaritza neurri eskusiboa izan daiteke, edo osagarria, aldi berean, lehenago edo geroago hartzen diren beste hezkuntza neurri batzuekin.

**8.5. Elkarbizitzaren aurkako portaerak.**

Oro har, elkarbizitzaren aurkako portaerak dira, Elkarbizitzaren Erregelamenduan agertzen direnetatik ikastetxeko ohiko elkarbizitzarako bereziki kaltegarriak ez direnak.

ELKARBIZITZAREN AURKAKO PORTAERAK	HEZKUNTZA NEURRI ZUZENTZAILEAK	PROZEDURA ETA NEURRIAREN ARDURADUNA
1. Ikasteko eginbeharra ez betetzea, edo bere ikaskideek ikasteko duten eginbeharrak eta eskubideaz baliatzea eragozten duen beste edozein portaera hartzea, eskolak edo programatutako jardura osagarriak eta eskolaz kanpokoak bitartean.	a. Ahozko ohartarazpena.	a. Irakasleak tutoreari jakinarazi.
	b. Gela barrenean ikaslea lekuz aldatzea.	b. Irakasleak tutoreari jakinarazi .
	c. Atsedendietako denbora progresiboki galtzea edo egun bateko edo batzuetako atsedendia erabat galtzea, neurria hartu duen irakasleak agindutako lana eginez	c. Irakasleak tutoreari jakinarazi.
	d. Ikastetxean egon beharreko denbora luzatzea behar diren lanak eginez.	d. Irakasleak tutoreari jakinarazi.
	e. Klasetik pasabidera 5 minuturako kanporatzea, betiere ikaslea hezkuntza neurria hartu duen irakaslearen ardurapean egonik. Ondotik ikaslea klasera bueltatuko da behin jarrera zuzentzeko hitza eman eta irakasleari zein ikaskideei barkamena eskatu ondoren.	e. Irakasleak tutoreari jakinarazi.
	f1. Klasetik kanporatu gabe, jardura arruntatik baztertu eta irakasleak agindutako lana egitea. f2. Klasetik zaintza gelara kanporatzea irakasleak agindutako lana egitera.	f. Irakasleak portaera txarraren parte GOOGLE DRIVEN beteko du eta etxera telefonoz deituko du gertaeraren berri emateko. Ikasketa Buruak agiria kudeatuko du eta GOOGLE DRIVEN tutorearekin partekatuko du.
	g. Arloko hiru saioetara gehienez, etorrera galaraztea.	g. Irakasleak familiari jakinaraziko dio eta GOOGLE DRIVEN dagoen "etorrera galeraztea" formularioa beteko du. . Era berean Ikasketa buruak GOOGLE DRIVEN tutorearekin partekatuko du. Irakasteak zaintza gelan ikasleari egin beharreko lana emango dio.
	h. Jakitera emanen den arlo edo arloetako jardura osagarrietan eta/edo eskolaz kanpokoetan parte hartzeko eskubidea zehaztuko den aldi baterako galtzea.	h. Irakasleak tutoreari eta Zuzendariordeari jakinarazi.

ELKARBIZITZAREN AURKAKO PORTAERAK	HEZKUNTZA NEURRI ZUZENTZAILEAK	PROZEDURA ETA NEURRIAREN ARDURADUNA
2. Eskolara ez joatea edo berandu iristea justifikatu gabe. Eskolara ez joatea edo berandu iristea justifikaziorik gabekoa dela ondorioztatuko da idatziz desenkusatzan ez bada edo, hala eginda ere, ikastetxeak uste badu emandako arrazoia ez dela nahikoa hutsegitea justifikatzeko.	<p>a. Sei etorrera faltengatik idatzizko ohartarazpena.</p> <p>b. Berandu iristeagatik ahozko ohartarazpena. Errepikatzen bada atsedendietako denbora progresiboki galtzea edo arloko hiru saioretara gehienez etorrera galaraztea. Hiru atzerapenekin saio bati huts egitea bezala kontabilizatuko da.</p>	<p>a. Tutoreak sinatutako idatzizko ohartarazpena etxera bidaliko da Ikasketa Buruari jakinarazi ondotik.</p> <p>b. Irakasleak familiari, tutoreari eta Ikasketa Buruari jakinarazi eta ikasleari zaintza gelan egin beharreko lana emanen dio</p>
3. Eskolara behin eta berriz agertzea behar den materiala eraman gabe, hori ikasleari egotzi beharreko arrazoiengatik bada.	<p>a. Atsedendietako denbora progresiboki galtzea edo egun bateko edo batzuetako atsedendia erabat galtzea, neurria hartu duen irakasleak agindutako lana eginez.</p> <p>b. Ikastetxean egon beharreko denbora luzatzea behar diren lanak eginez.</p>	<p>a. Irakasleak tutoreari jakinarazi.</p> <p>b. Irakasleak tutoreari jakinarazi.</p>
4. Irakasleak lan gutxi egitea behin eta berriz, hala etxean nola ikasgelan.	<p>a. Atsedendietako denbora progresiboki galtzea edo egun bateko edo batzuetako atsedendia erabat galtzea, neurria hartu duen irakasleak agindutako lana eginez.</p> <p>b. Ikastetxean egon beharreko denbora luzatzea</p>	<p>a. Irakasleak tutoreari jakinarazi.</p> <p>b. Irakasleak tutoreari jakinarazi.</p>
5. Pertsonen duintasunaren eta legez ezarritako eskubide demokratikoen aurkako adierazpen berariazkoak egitea, edo hezkuntza proiektuaren eta ikastetxearen beraren izaeraren aurkakoak.	<p>a. Klasetik pasabidera 5 minuturako kanporatzea. Ondotik ikaslea klasera bueltatuko da behin jarrera zuzentzeko hitza eman eta irakasleari zein ikaskideei barkamena eskatu ondoren.</p> <p>b1. Klasetik kanporatu gabe, jarduera arruntatik baztertu eta irakasleak agindutako lana egitea.</p> <p>b2. Klasetik zaintza gelara kanporatzea irakasleak agindutako lana egitera.</p> <p>c. Arloko hiru saioretara gehienez, etorrera galaraztea.</p>	<p>a. c. Irakasleak tutoreari jakinarazi.</p> <p>b. Irakasleak portaera txarraren parte GOOGLE DRIVEN beteko du eta etxera telefonoz deituko du gertaeraren berri emateko. Ikasketa Buruak agiria kudeatuko du eta GOOGLE DRIVEN tutorearekin partekatuko du.</p> <p>c. Irakasleak familiari jakinaraziko dio eta GOOGLE DRIVEN dagoen "etorrera galaraztea" formularioa beteko du. Era berean Ikasketa buruak GOOGLE DRIVEN tutorearekin partekatuko du. Irakasteak zaintza gelan ikasleari egin beharreko lana emango dio.</p>

ELKARBIZITZAREN AURKAKO PORTAERAK	HEZKUNTZA NEURRI ZUZENTZAILEAK	PROZEDURA ETA NEURRIAREN ARDURADUNA
6. Irakaslearen agintearen aurkako errespetu faltak, eta ikastetxeko langileei desobeditzea, beren eginkizunetan ari direla.	a. Barkamena eskatzea dagokion langileari	a. Langileak tutoreari jakinarazi.
	b. Klasetik pasillora 5 minuturako kanporatzea. Ondotik ikaslea klasera bueltatuko da behin jarrera zuzentzeko hitza eman eta irakasleari zein ikaskideei barkamena eskatu ondoren.	b. Irakasleak tutoreari jakinarazi.
	c.1. Klasetik kanporatu gabe, jarduera arruntatik baztertu eta irakasleak agindutako lana egitea. c.2. Klasetik zaintza gelara kanporatzea irakasleak agindutako lana egitera.	c. Irakasleak portaera txarraren parte GOOGLE DRIVEN beteko du eta etxera telefonoz deituko du gertaeraren berri emateko. Ikasketa Buruak agiria kudeatuko du eta GOOGLE DRIVEN tutorearekin partekatuko du.
	d. Arloko hiru saioretara gehienez, etorrera galaraztea.	d. Irakasleak familiari jakinaraziko dio eta GOOGLE DRIVEN dagoen "etorrera galeraztea" formularioa beteko du. . Era berean Ikasketa buruak GOOGLE DRIVEN tutorearekin partekatuko du. Irakasteak zaintza gelan ikasleari egin beharreko lana emango dio.
7. Eskola elkartekoak diren edo haren zerbitzura jarduten duten kideak desegoki eta errespetu gabe tratatzea.	a. Barkamena eskatzea dagokion langileari	a. Langileak tutoreari jakinarazi.
8. Taldekako absentsietan parte hartzea, zuzendaritzak baimentzen ez baditu.	a. Elkarrizketa tutorearekin	a. Tutoreak gurasoei jakinarazi
	b. Jarduera osagarrietan eta/edo eskolaz kanpokoetan parte hartzeko eskubidea galtzea	b. Tutoreak eta Zuzendaritzak epea adostu eta gurasoei jakinarazi.
9. Ikastetxeko langileei gezurrak esatea edo nahia informazio faltsua ematea, horrek eskola elkartekoa den edo haren zerbitzura jarduten duen kideren bati kalte larria eragiten ez badio.	a. Barkamena eskatzea dagokion langileari	a. Langileak tutoreari jakinarazi.
10. Debekatuta dauden ekipoak, materialak, jantziak edo gailuak eramatea, salbu eta zuzendaritzaren baimena badu.	a. Lehendabiziko aldia bada, aste batez tresna (sakeleko telefonoa, MP3, MP4, musika erreproduzitzaila eta antzekoak) gordailuan utzi, bigarrenean hilabete batez eta hirugarrena ikasturte bukaera arte.	a. Irakasleak tresna hartu, Ikasketa Burutzara eraman eta etxera deituko du. Gurasoak tresnaren bila etorriko dira. Lehen aldian aste baten buruan, bigarrenean hilabete baten buruan eta hirugarrenean ikasturte bukaeran.
11. Ikastetxeko guneak, materiala eta ekipamendua erabiltzea baimenik gabe, edo hezkuntzakoak ez diren helburuetarako edo baimendutakoak ez diren beste batzuetarako.	a. Ahozko ohartarazpena.	a. Irakasleak tutoreari jakinarazi, eta beharrezkoa ikusten badu gertaera orria beteko du GOOGLE DRIVEN ikasketa burutzari jakinarazteko.
ELKARBIZITZAREN AURKAKO PORTAERAK	HEZKUNTZA NEURRI ZUZENTZAILEAK	PROZEDURA ETA NEURRIAREN ARDURADUNA

12. Norberaren higienerari eta garbiketari behin eta berriz arreta galtzea, nahita.	a. Elkarrizketa tutorea edo orientatzailearekin.	a. Tutoreak edo orientatzaileak gurasoekin tratatuko du gaia.
13. Ikastetxeko instalazio edo materialak, eskolako garraio bideak edo bisitatzen diren lekuetako ondasun edo instalazioak nahita edo axolagabekeriak hondatzea, baita eskola elkartekoa den edo haren zerbitzura jarduten duen edozein kideren gauzak ere, kaltea arina denean.	a. Egindako kaltea konpondu edo/ eta sortutako gastuak ordaindu.	a. Irakasleak tutoreari jakinarazi, eta beharrezkoa ikusten badu gertaera orria beteko du GOOGLE DRIVEN ikasketa burutzari jakinarazteko. Kaltearen erantzulea identifikatua badago tutoreak hartutako neurriaren berri emanen die ikasleari eta gurasoei. Kaltearen erantzulea identifikatua ez balego talde osoari jarriko zaio neurria.
	b. Doako programako testuliburua ordezkatzeko	b. Arloko irakasleak gainbegiratu ondoren, ordezkatu beharreko liburuen zerrenda tutoreari emanen dio.
14. Ikastetxeko instalazioen, ekipamenduen, materialen edo inguruen garbiketa galaraztea, hala nola eskolako garraiorako autobusena edo ikastetxearekin bisitatzen diren lekuen. Pintaketak egitea bereziki tratatuko dira.	a. Atsedenaldi edo arratsaldeetan garbiketa lanak egitea.	a. Irakasleak eta tutoreak adostuko dute neurria eta behar denean gurasoei jakinarazi.
15. Ikastetxeak aitei, amei edo legezko ordezkarietara bidaltzen diren informazioa ez ematea edo ez jakinaraztea haiei.	a. Elkarrizketa ikaslea, tutorea eta gurasoak.	a. Tutoreak bileraren deialdia egingen du eta bertan konpromisua hitzartzen saiatuko dira.
16. Eskola jardueraren ohiko garapena nahasten duen beste edozein jokabide oker, ikastetxeko elkarbizitzarako bereziki kaltegarria den portaeratzat hartzen ez bada.	a. Atsedendietako denbora progresiboki galtzea edo egun bateko edo batzuetako atsedenaldira erabat galtzea, neurria hartu duen irakasleak agindutako lana eginez.	a. Irakasleak tutoreari jakinarazi.
	b. Ikastetxean egon beharreko denbora luzatzea.	b. Irakasleak tutoreari jakinarazi.
17. Azterketetan, probetan edo ariketetan kopiatzea edo beste ikasle batzuei kopiatzeko bidea ematea.	a. Azterketan, proban edo ariketa horietan kalifikazio negatiboa jartzea.	a. Irakasleak tutoreari jakinarazi.
18. Ikastetxearen barrenean, eskolako garraio bideetan edo ikastetxeak antolatzen dituen jardueren bitartean erretzea, alkohola duten edariak eta bertze edozein drogak kontsumitzea.	a. Lehendabiziko aldia bada ahozko ohartarazpena	a. Irakasleak GOOGLE DRIVEN dagoen "gertaera orria" formularioa beteko du Ikasketa Burutzari jakinarazteko. Zuzendaritzak, familiari gertaeraren berri emango dio eta parte orria tutorearekin partekatuko du.

**8.6. Elkarbizitarako bereziki kaltegarriak diren portaerak. Oro har, Elkarbizitzaren Erregelamenduan agertzen direnetatik ikastetxeko ohiko elkarbizitza larriki nahasten dutenak dira.**

ELKARBIZITZARAKO BEREZIKI KALTEGARRIAK DIREN PORTAERAK.	HEZKUNTZA NEURRI ZUZENTZAILEAK	PROZEDURA ETA NEURRIAREN ARDURADUNA
<p>1) Irakasleen edo haren agintearen aurkako edo eskola elkartekoak diren edo haren zerbitzura jarduten duten kideen aurkako irainak, kalumniak, ofentsak, isekak edo umilazioak, haien aurkako indarkeria fisikoa edo bestelakoa eta, halaber, haienganako jazarpen eta hitzezko edo egitezko jokabideak, bereziki alderdi sexista, arrazakeriazkoa edo xenofoboa badute edo pertsonen sinesmen edo konbikzio moralen aurkakoak badira, edo dituzten ezaugarri pertsonalen, ekonomikoen, sozialen edo hezkuntzakoengatik ahulenak diren pertsonen aurka egiten badira.</p> <p>2) Eskolaldiko edo hezkuntzako jardueren barreneko testuak, irudiak, soinuak eta abar grabatzea zuzendaritzak baimentzen ez dituen erabileretarako, baita pertsonen bizitza pribatuarekin zerikusia duen edozein eszena grabatzea ere.</p> <p>3) Aurreko atalean adierazitakoak baliabide elektronikoen bidez edo beste baliabide batzuen bidez hedatzea.</p>	<p>a. Jarduera osagarrietan eta/edo eskolaz kanpokoetan parte hartzeko eskubidea etetea ikasturte osorako edo zati baterako.</p> <p>-----</p> <p>b. Irakasgai bateko edo gehiagoko eskoletara edo, ohiz kanpoko kasuetan, ikastetxera joateko eskubidea etetea, bi kasuetan hamabost eskola egunetarako gehienez. Etenaldia bitartean, ikasleak ezartzen diren prestakuntza jarduerak egin beharko ditu, bere hezkuntza eta ebaluazio prozesua eten ez dadin. Horretarako, lan plan bat diseinatuko da non arlo bakoitzako irakasleak dagokion zatia prestatuko duen. Irakasleek plan horretako jardueren segimendua egiten dute eta irakasgaien azken ebaluazioan kontuan hartuko dituzte. Era berean, ikasleak etenaldi horretan programaturik dauden ebaluazio proba objektiboak egiten ahalko ditu. Gainera, ikastetxea jakitun bada, hezkuntza neurria aplikatzearen ondorioz, adingabe bat arrisku egoera berezian edo babesik gabe gelditzeko aukera dagoela, orientatzailearen bidez, Oinarrizko Gizarte Zerbitzuei horren berri emanen die.</p> <p>-----</p> <p>c. Ohiz kanpoko kasuetan, ikaslearen portaerak asaldura handia eragin baldin badio eskola elkarteari, ikastetxeko zuzendariak, Eskola Kontseiluak ontzat eman ondoren, ikastetxe aldaketa eskatuko dio Ikuskapenaren eta Zerbitzuen Zuzendaritza Nagusiari. Ahal bada, ikaslea eskolaturik dagoen ikastetxe sare eta hizkuntza modalitate bereko beste ikastetxe batera eramaten da.</p>	<p>Ohiko prozedura eta ahal bada prozedura adostua. (Ikusi 8.6.2.eta 8.6.3. atalak)</p>

ELKARBIZITZARAKO BEREZIKI KALTEGARRIAK DIREN PORTAERAK.	HEZKUNTZA NEURRI ZUZENTZAILEAK	PROZEDURA ETA NEURRIAREN ARDURADUNA
<p>4) Ikastetxeko instalazioak, materialak edo dokumentuak, eskolako garraioak edo bisitatzen diren lekuetako ondasun edo instalazioak nahita hondatzea, baita eskola elkartekoak diren edo haren zerbitzura jarduten duten gainerako kideen gauzak ere, kaltea larria denean.</p> <p>5) Asmo txarrez eginak izateagatik, eskola elkartekoak diren edo haren zerbitzura jarduten duten kideen osotasun fisikoarentzat arriskugarriak izan daitezkeen portaerak</p>	<p>a. Eskola ordutegitik kanpora, eskola elkartearen aldeko lanak egitea eta, oro har, instalazioetan, garraio zerbitzuan, materialetan, dokumentuetan edo beste pertsona batzuen gauzetan eragindako kaltea konpontzea.</p> <p>-----</p> <p>b. Eskolako garraioa erabiltzeko eskubidea etetea hamabost eskola egunetarako gehienez, portaera eskolako garraioan hartu baldin bada. Zerbitzu honen erabilera aukerakoa baldin bada ikaslearentzat, erabiltzeko eskubidea etetea ikasturtearen bukaerara arte.</p> <p>-----</p> <p>c. Jarduera osagarrietan eta/edo eskolaz kanpokoetan parte hartzeko eskubidea etetea ikasturte osorako edo zati baterako.</p>	<p>Ohiko prozedura eta ahal bada prozedura adostua. (Ikusi 8.6.2. eta 8.6.3. atalak)</p>



ELKARBIZITZARAKO BEREZIKI KALTEGARRIAK DIREN PORTAERAK.	HEZKUNTZA NEURRI ZUZENTZAILEAK	PROZEDURA ETA NEURRIAREN ARDURADUNA
<p>6) Ikastetxeko langileei gezurrak esatea edo informazio faltsua ematea nahita, horrek eskola elkartekoa den edo haren zerbitzura jarduten duen kideren bati kalte larria eragiten badio.</p> <p>7) Ikastetxeko gauzak edo edozein pertsonaren gauzak lapurtzea</p> <p>8) Ekitaldi akademikoetan beste pertsona baten itxurak egitea eta agiri akademikoak faltsutzea edo lapurtzea. Bereziki larritzat joko da azterketen ereduak edo erantzunen kopiak lapurtzea, eta haiek hedatzea, edukitzea, erostea edo saltzea.</p> <p>9) Elkarbizitzarako bereziki kaltegarria den portaera baten jakitun edo lekuko izatea eta zuzendaritza taldeari ez jakinaraztea.</p> <p>10) Obedientzia ukatzeko portaerak, bereziki ezarritako hezkuntza neurriak betetzen ez direnean.</p> <p>11) Konstituzioan jasotako eskubide eta askatasunen aurkakoak diren edo terrorismoaren apologiatzat hartzen diren pintaketak edo idatzizko beste adierazpen batzuk egitea edo halako kartelak jartzea.</p> <p>12) Drogak kontsumitzea edo banatzea, edari alkoholduak edatea behin eta berriz ikastetxeko guneetan, eskolako garraiobideetan edo ikastetxeak antolatzen dituen jardueretan, edo portaera horiek hartzera bultzatzea.</p> <p>13) Elkarbizitzaren aurkako portaerak behin eta berriz hartzea, 15. eta ondoko ataletan ezartzen diren portaerak salbu.</p> <p>14) Ikastetxeko jardueren ohiko garapena zuzenean galaraztera bideratutako edozein egintza edo jokabide oker.</p>	<p>a. Jarduera osagarrietan eta/edo eskolaz kanpokoetan parte hartzeko eskubidea etetea ikasturte osorako edo zati baterako</p> <p>b. Irakasgai bateko edo gehiagoko eskoletara edo, ohiz kanpoko kasuetan, ikastetxera joateko eskubidea etetea, bi kasuetan hamabost eskola egunetarako gehienez. Etenaldia bitartean, ikasleak ezartzen diren prestakuntza jarduerak egin beharko ditu, bere hezkuntza eta ebaluazio prozesua eten ez dadin. Horretarako, lan plan bat diseinatuko da non arlo bakoitzako irakasleak dagkion zatia prestatuko duen. Irakasleek plan horretako jardueren segimendua egingen dute eta irakasgaien azken ebaluazioan kontuan hartuko dituzte. Era berean, ikasleak etenaldi horretan programaturik dauden ebaluazio proba objektiboak egiten ahalko ditu.</p> <p>c. Ohiz kanpoko kasuetan, ikaslearen portaerak asaldura handia eragin baldin badio eskola elkarteari, ikastetxeko zuzendariak, Eskola Kontseiluak ontzat eman ondoren, ikastetxe aldaketa eskatuko dio Ikuskarpenaren eta Zerbitzuen Zuzendaritza Nagusiari. Ahal bada, ikaslea eskolaturik dagoen ikastetxe sare eta hezkuntza modalitate bereko beste ikastetxe batera eramaten da.</p>	<p>Ohiko prozedura eta ahal bada prozedura adostua. (Ikusi 8.6.2. eta 8.6.3. atalak)</p> <p>Gainera, ikastetxea jakitun bada, hezkuntza neurria aplikatzearen ondorioz, adingabe bat arrisku egoera berezian edo babesik gabe gelditzeko aukera dagoela, orientatzailearen bidez, Oinarrizko Gizarte Zerbitzuei horren berri emanen die</p>
<p><b>ELKARBIZITZARAKO BEREZIKI KALTEGARRIAK DIREN PORTAERAK</b></p>	<p><b>HEZKUNTZA NEURRI ZUZENTZAILEAK</b></p>	<p><b>PROZEDURA ETA NEURRIAREN ARDURADUNA</b></p>

<p>15) Eskolara behin eta berriz ez joatea justifikatu gabe.</p>	<p>a. Hamabi etorrera faltengatik bi eguneko kanporaketa Ikastetxetik.</p> <p>b. Hamabi etorrera falta gehiago pilatzen den aldiro bortz eguneko kanporaketa Ikastetxetik.</p> <p>c. Salbuespen gisa kasu berezirik balego eta Elkarbizitzarako Batzordeak iritzi horretako baldin bada bertze neurri batzuk aplikatzea posible izanen da.</p>	<p>Ikasketa Burutzan jakinarazi eta prozedura adostu zuzena aplikatu (Ikusi 8.6.4. atala)</p> <p>Institututik kanporatutako ikasleak tutorearen koordinazioa dela medio irakasle taldeak proposatutako lan plana bete beharko du. Era berean, ikasleak etenaldi horretan programaturik dauden ebaluazio proba objektiboak egiten ahalko ditu</p>
<p>16) Klasetik zaintza gelara behin eta berriz kanporatua izana edo kanporatu gabe jarduera arruntatik apartatu izana.</p>	<p>a. Lau bizikidetzaren aurkako agiriengatik ikaslea bi eguneko kanporatua izanen da Ikastetxetik. Honetaz gain ikastetxeak erabaki dezake jarduera osagarri eta eskolaz kanpokoetan ez parte hartzea hiru hilabetez.</p> <p>b. Lau bizikidetzaren aurkako agiri gehiago pilatzen den aldiro ikaslea bortz eguneko kanporatua izanen da Ikastetxetik.</p> <p>c. Salbuespen gisa kasu berezirik balego eta Elkarbizitzarako Batzordeak iritzi horretako baldin bada bertze neurri batzuk aplikatzea posible izanen da.</p>	<p>Gainera, ikastetxea jakitun bada, hezkuntza neurria aplikatzearen ondorioz, adingabe bat arrisku egoera berezian edo babesik gabe gelditzeko aukera dagoela, orientatzailearen bidez, Oinarrizko Gizarte Zerbitzuei horren berri emanen die</p>
<p>17) Ikastetxearen barranean, eskolako garraibideetan edo ikastetxeak antolatzen dituen jardueren bitartean behin eta berriz erretzea, alkohola duten edariak eta bertze edozein drogak kontsumitzea.</p>	<p>a. Bigarren aldian adostutako neurria edo honen ezean aste beteko atsedenaldiak zaintza gelan egotea.</p> <p>b. Hirugarren aldian eta ondokoetan ikaslea egun bat kanporatua izanen da Ikastetxetik.</p>	<p>Irakasleak “gertaera orria” formularioa GOOGLE DIVREn beteko du eta Ikasketa Burutzan bidaliko du. Ikasketa Burutzak formularioa tutorearekin partekatuko du.</p> <p>Tutoreak, familia eta ikaslea bilera batera deituko ditu eta neurri zuzentzailea adostuko dute. Hau posible ez bada ikasleak astebeteko atsedenaldiak zaintza gelan eman beharko ditu zaintzako irakasle batekin ( salbuespen gisa gosaria bertan jatea onartuko da). Tutoreak Ikasketa Burutzan jakinaraziko du erabakia eta bere esku geldituko da neurria gauzatzearen ardura.</p> <p>Ikasleak ez badu erabakitakoa betetzen egun bat kanporatua izanen da Ikastetxetik.</p> <p>Irakasleak “gertaera orria” formularioa GOOGLE DIVREn beteko du eta Ikasketa Burutzan bidaliko du. Ikasketa Burutzak formularioa tutorearekin partekatuko du.</p> <p>Prozedura adostua zuzena.(Ikusi 8.6.4. atala)</p>

- ◆ Hezkuntza neurri hauek aplikatzeko momentuan, egon daitezke inguruabar aringarri eta astungarriak kontutan hartu behar dira.

INGURUABAR ARINGARRI.	INGURUABAR ASTUNGARRI.
a) Portaera desegokia berez onartzea eta, hala badagokio, kaltea konpontzea. b) Nahita egina ez izatea. c) Barkamena eskatzea. d) Eragindako kaltea konpentsatzeko zerbait eskaintzea e) Lehenagotik hezkuntza neurriak aplikatu ez izana. f) Arau-hausleak bitartekaritza prozesuetan parte hartzeko borondatea izatea, horrelakoetarako aukera baldin badago.	a) Premeditazioa. b) Ikastetxeko elkarbizitarako bereziki kaltegarriak diren portaeretan berreslea izatea ikasturte berean. c) Eskola elkartekoak diren edo haren zerbitzura jarduten duten kideei kalte egiten dieten portaerak. d) Ikaskide gazteagoi edo bereziki ahulak diren ikaskideei kalte egiten dieten portaerak. e) Jaiolekuagatik, sexuagatik, arrazagatik, sinesmen ideologiko edo erlijiosoengatik, desgaitasun fisiko, psikiko edo sensorialagatik edo beste edozein baldintza pertsonal edo sozialengatik bereizkeria dakarten ekintzak. f) Eskola elkartekoak diren edo haren zerbitzura jarduten duten gainerako kideen eskubideak urratzen dituzten jarduketak taldeka egitera bultzatzea edo animatzea. g) Elkarbizitarako bereziki kaltegarria den edozein jarduketaren publizitatea egitea. h) Ikastetxeari edo eskola elkartekoak diren edo haren zerbitzura jarduten duten kideei eragindako kalteak bereziki handiak izatea. i) Zuzendu beharreko edozein portaera grabatzea eta/edo hedatzea.

#### 8.6.1. Elkarbizitarako bereziki kaltegarriak diren portaeretan kautelazko neurriak.

Behin betiko hezkuntza neurriak aplikatu aurretik, zuzendariak kautelazko neurriak aplikatzen ahalko ditu. Kautelazko neurriak honelakoak izanen dira:

- Ikaslea taldez aldatzea aldi baterako.
- Eskola saio batzuetara edo ikastetxera joateko eskubidea etetea aldi baterako.
- Eskolaz kanpoko jardueretara edo jarduera osagarrietara joateko eskubidea etetea.
- Institutuko garraio zerbitzu osagarriaren erabilera etetea.

**8.6.2. Elkarbizitarako bereziki kaltegarriak diren portaeretan hezkuntza neurriak aplikatzeko ohiko prozedura.**

Portaera bereziki kaltegarri guztiak eta haren ondorioak ikastetxeko zuzendaritzari jakinarazi behar zaizkio. Zuzendariak edo, hala bada, haren eskuordetza hartzen duen irakasleak behar adina ikerketa edo jarduketa egiten ahalko ditu ekintza horrela tipifikatzeko, hala nola erantzuleak identifikatzeko eta ohiko prozedurari hasiera emateko, ekintzaren berri izan eta biharamunetik hasita hiru eskola eguneko epean gehienez.

1. Ohiko prozedura hasiko da **HASTEKO DOKUMENTUA** ikasleari, haren amari edo aitari edo legezko ordezkariari eta instruktoreari ematearekin batera. Elkarbizitarako bereziki kaltegarria den portaera preskribituko da dokumentu horren entrega ez bada egiten egintzen berri izan eta hirurogei eskola eguneko epearen barrenean.
2. Zuzendariak portaeraren larritasunaren arabera egokiak iruditzen zaizkion kautelazko neurriak aplikatuko ditu.
3. Ohiko prozedurari hasiera emateko dokumentua zuzendaritzak egin beharko du eta honako alderdi hauek jasoko ditu:
  - a) Neurri horiek aplikatzeko eskumena ematen dion araudiaren aipamen zehatza.
  - b) Prozedura irekitzea ekarri duten egintzak eta frogak.
  - c) Zuzendu beharreko portaera, hautsitako arauak, data eta tokia.
  - d) Inplikaturako ikasleria.
  - e) Tramitazioaren ardura duen instruktorea, klaustroko kideen artean zoriz hautatua.
  - f) Aplikaturako kautelazko neurriak, halakorik bada.
  - g) Inguruabar astungarrien eta aringarrien azalpena, horrelakorik baldin bada.
  - h) Aplikatu beharreko hezkuntza neurriak, horiek hasteko eta bukatzeko egunak eta aplikatzeko baliabideak.
  - i) Alegazioak egiteko prozedura eta epeak, adieraziz alegaziorik aurkezten ez bada, egintzak frogatuzat joko direla eta prozedura hasteko dokumentua prozedurari bukaera emateko ebazpentzat hartuko dela.
  - j) Eskola Kontseiluan erreklamazioak aurkezteko prozedura eta epea.
4. Aurreko puntuan aipatzen den dokumentuan, zuzendaritzak proposatzen ahalko du prozeduraren tramitazioa Elkarbizitza Erregelamendu honen hurrengo atalean ezarri bezala egitea, kontuan harturik aurretik hartan ezarritako salbuespenak.
5. Alegazioak, zuzendariari zuzenduak, ikastetxean aurkeztuko dira, idatziz, prozedura hasteko jakinarazpenaren biharamunetik hasita bi eskola eguneko epearen barruan. Idazki horretan, halaber, instruktorea errefusatzeko eskaera arrazoitua egiten ahalko da.
6. Errefusatzeko instruktoreak adieraziko du alegaturako zergatia baden edo ez. Errefusatzeko idazkia aurkeztu eta hurrengo eskola egunean, zuzendariak horren gaineko ebazpena eman eta jakinarazi beharko du.
7. Ezarritako epean alegaziorik aurkezten ez bada, egintzak frogatuzat hartuko dira eta prozedura hasteko dokumentua **prozedura bukatzeko ebazpentzat** hartuko da.
8. Ikasleak, haren gurasoek edo legezko ordezkariak alegazioak aurkeztuz gero ezarritako epean, instruktoreak, bere agintea erabiliz, egoki iruditzen zaizkion jarduketak egiten ditu egintzak argitzeko. Alegazioak aurkeztu eta bost eskola eguneko epean gehienez, eta alegazioak kontuan harturik, ebazpen proposamena prestatu eta zuzendariari aurkeztuko dio. Proposamen horretan alderdi hauek jasoko dira:
  - a) Frogatuzat hartzen diren egintzak eta hori egiaztatzen duten frogak.
  - b) Zuzendu beharreko portaera, hautsitako elkarbizitza arauak, data eta tokia.
  - c) Inplikaturako ikasleria.
  - d) Aplikaturako kautelazko neurriak, halakorik bada.
  - e) Inguruabar astungarrien eta aringarrien azalpena, horrelakorik baldin bada.
  - f) Aplikatu beharreko hezkuntza neurrien proposamena.
 Bost eskola eguneko epea luzatzen ahalko da, instruktoreak hori justifikatzeko arrazoiak daudela uste badu.
9. Ebazpen proposamena aurkeztu eta biharamunetik hasita bi eskola eguneko epean gehienez, zuzendariak prozedura bukatzeko ebazpena emanen du. Bi

eskola eguneko epea luzatzen ahalko da, zuzendaritzak hori justifikatzeko arrazoiak daudela uste badu. Ebazpen horretan honako hauek adieraziko dira gutxienez:

- a) Neurri horiek aplikatzeko eskumena ematen dion araudiaren aipamen zehatza.
- b) Frogatutako egintzak eta zuzendu beharreko portaerak.
- c) Inguruabar astungarriak eta aringarriak, horrelakorik baldin badago.
- d) Aplikatu beharreko hezkuntza neurriak eta, hala badagokio, horiek hasteko eta bukatzeko egunak eta aplikatzeko baliabideak.
- e) Eskola Kontseiluan erreklamazioak aurkezteko prozedura eta epea.

10. Ohiko prozeduraren ebazpenaren berri ikasleari eta bere gurasoei edo legezko ordezkariari emanen zaie, idatzi baten bidez, non adierazi beharko baita ebazpen horrek administrazio bidea amaitzen duela eta haren aurka, aukeran, atal honen 14. puntuari aipatzen den Eskola Kontseiluari erreklamazioa edo bidezko errekurtsio juridikozionala aurkezteko ahalko dela, baita zein organotan aurkeztu behar den eta zein epean.

11. Elkarbizitzarako bereziki kaltegarriak diren portaeretan hezkuntza neurriak aplikatzeko prozedura garbi adierazita geldituko da prozeduraren ebazpen dokumentuan, portaeraren araberakoa izanen da eta kontutan hartuko du instruktoeen ebazpen proposamena.

12. Nolanahi ere, ohiko prozeduraren tramitazioa hogeita hamar eskola eguneko epean bukatu beharko da, prozeduraren hasieraren jakinarazpenetik hasita interesdunari edo, hala badagokio, familiari jakinarazten zaion arte. Bestela, prozedura iraungitzat hartuko da.

13. Erreklamazioak:

- a) Prozeduraren gaineko ebazpena jakinarazita, ikasleak, adinez nagusia bada, edo haren gurasoek edo legezko ordezkariak zuzendariaren erabakiaren berrikuspena eskatzen ahalko diote Eskola Kontseiluari, jakinarazpena jaso eta bi eskola eguneko epearen barruan.
- b) Hartutako erabakia berrikusteko, Eskola Kontseiluaren bilkura berezia deituko da. Prozedurari bukaera emateko ebazpena eta erreklamazioa ikusita, Kontseiluak zuzendariari adieraziko dio aplikatutako neurria berresteko edo aldatu edo baliogabetzeko.
- c) Kontseiluaren proposamena hamar eskola eguneko epean egin beharko da, erreklamazioa jaso eta biharamunetik hasita. Eskola Kontseiluaren proposamena erabakia aldatu edo baliogabetzekoa baldin bada, proposamena jaso eta biharamunetik bi eskola eguneko epean, zuzendariak Hezkuntza Departamentuari hartutako erabakiaren legezotasunari buruzko txostena eskatzen ahalko dio. Txosten hori hamar eskola eguneko epean egin beharko da. Zuzendariak bere ebazpena eman eta erreklamazio-egileari idatziz jakinarazi behar dio.
- d) Jakinarazpen horretan adierazi beharko da ebazpenaren aurka bidezko den errekurtsioa, zein organotan jarri behar den eta zein epean.

**8.6.3. Elkarbizitzarako bereziki kaltegarriak diren portaeretan hezkuntza neurriak aplikatzeko prozedura adostua.**

1. 8.6. atalaren 1etik 14ra zehazten diren portaeretan ikastetxeko zuzendariak arau-haustea egin duen ikasleari eta haren gurasoei edo legezko ordezkariari aukera emanen die prozedura adostuaren bidea hartzeko, inguruabar hauek betetzen badira:
  - a) Bereziki kaltegarria den portaera aitortzea.
  - b) Kalteturik izanez gero, haiei barkamena eskatzea.
2. Honako kasu hauetan, ezin izanen da espedientea prozedura adostuaren bidez tramitatu:
  - a) Inplikaturako ikasleari horrelako beste prozedura bat tramitatu baldin bazaio ikasturte berean.
  - b) Ikasturte berean, ikasleari aplikatu zaion hezkuntza neurriren bat ez bada bete.
3. Prozedura adostuaren bidez tramitatzeko aukera ohiko prozedura hasteko dokumentuan jasoko da. Dokumentu horretan interesdunei bilera bat egitea proposatuko zaie, behar den deialdiaren bidez.
4. Bilera hori ikastetxeko zuzendaritzarekin izanen da eta helburua izanen da prozedura adostuaren abantailak azaltzea. Bilera horrexetan, ikasleak edo haren gurasoek erabakiko dute prozedura adostua onartu edo baztertzen duten.
5. Bilerara agertzen ez badira edo aukerabide hori baztertzen badute, hezkuntza neurriaren aplikazioaren tramitazioa ohiko prozeduraren bidez egingen da. Horrelakoetan, alegazioak aurkezteko eta instruktoea errefusatzeko epea bilera egiteko finkaturako egunaren biharamunetik hasiko da.
6. Prozedura adostuaren tramitazioan espedientearen instruktoea, ikaslearen irakasle tutorea, Ikasketa Burutza edo horren ordezkari Informatikako Zuzendaria eta ikaslearen aita, ama edo legezko ordezkariak parte hartuko dute, eta aplikatu beharreko hezkuntza neurria adostu arte luzatuko den bileran gauzatuko da. Nolanahi ere, aplikatzen den neurria arinagoa izanen da prozedura hasteko dokumentuan ezartzen dena baino.
7. Prozedura adostua tramitatu gero, zuzendaritzak elkarbizitzarako konpromisoa erredaktatu beharko du. Konpromiso horretan, gutxienez, ikaslearen eta gurasoen edo legezko ordezkarien onarpena konpromisoari, aplikaturako hezkuntza neurria eta hura betetzeko baliabideak agertuko dira. Konpromisoa hiru eskola eguneko epean adostu eta sinatu beharko da, bilera egin eta biharamunetik aurrera. Sinadurak bukaera emanen dio prozedura adostuari.
8. Nolanahi ere, prozedura adostuaren bidezko tramitazioa hogeit hamar eguneko epean bukatu beharko da, prozeduraren hasiera jakinarazten denetik hasita. Bestela, prozedura iraungitzat hartuko da.
9. Prozeduraren tramitazioaren bitartean, akordioak porrot egiten badu, ohiko prozeduraren bidez segituko da. Horrelakoetan, alegazioak aurkeztu eta instruktoea errefusatzeko epea porrota gertatu eta biharamunetik hasiko da.

Elkarbizitzarako bereziki kaltegarriak diren portaerak direla eta, ikasleei hezkuntza neurriak aplikatzeko irekitzen zaizkien prozeduren tramitazioaldiko dokumentazioa paper zein informatika euskarrian artxibatuko da Informatikako Ikasketa Burutzan, eta horren ardura izanen da informazio horren konfidentziasuna behar bezala gordetzea.

Hautsitako arauak eta aplikaturako hezkuntza neurriak erregistroetatik desagertuko dira neurria betetzen denetik bi urte bete ondoren.

**8.6.4. Elkarbizitzarako bereziki kaltegarriak diren portaeretan hezkuntza neurriak aplikatzeko prozedura adostu zuzena**

8.6. atalaren 15, 16 eta 17 puntuetan zehazten diren portaeretan arau-haustea egin duen ikaslearen tutoreak ikasleari eta gurasoei edo legezko ordezkariari deituko die bilera batera.

1. Tutorea prozeduraren instruktoea izanen da
2. Tutoreak bilera batera deituko ditu ikaslea eta familia, bertan gertaeren berri emanen die HASTEKO DOKUMENTUA erabiliz eta honekin batera aplikatu beharreko hezkuntza neurria eta bizikidetzak konpromisoa idatzi eta onartuko da. Dokumentazio hau PROZEDURA BUKATZEKO EBAZPENatzat hartuko da.
3. Bilerara agertzen ez badira neurri zuzentzailearen berri idatziz bidaliko zaie.

**8.7. Elkarbizitzarako konpromisoak**

Ikasle batek portaera arazoak baldin baditu, ikastetxearen, ikaslearen eta gurasoen edo legezko ordezkarien arteko elkarbizitzarako konpromisoak sinatzen ahalko dira, ikasturtearen edozein unetan, ahaleginak bateratzeko eta proposatzen diren ekintzak eta neurriak irakasleekin eta beste profesional batzuekin koordinatzeko.

Tutoreak bere kabuz (edo hezkuntza taldeak proposatua) edo familiaren ekimenez Elkarbizitzarako Konpromisoa sinatu ahal izanen du. Tutoreak, sinatu baino lehen, edozein elkarbizitzarako konpromisoaren berri eman beharko dio zuzendaritzari, honek aipaturiko konpromisoa indarrean dagoen elkarbizitza planarekin bat datorren egiazta dezan.

Behin bat datorrela egiaztatu ondoren, zuzendariak baimena emanen dio tutoreari konpromisoa sinatzeko. Konpromiso honetan ikasleak duen portaera ezkorra gainditzeko harturiko neurri zehatzak eta neurri hauek gauzatzeko alde bakoitzak beregain hartzen dituen eginbeharrak ezarriko dira.

Elkarbizitzaren konpromisoaren hasierako iraupenaz gain, hona hemen adibide gisa, alde ezberdinek beregain hartzen dituzten konpromisoak

**FAMILIAREN ALDETIK:**

- Eskolaldi guztian zehar ikaslea garaiz eta egunero etortzea.
- Klaseetarako beharrezko materialak ekartzea.
- Irakasleriak proposaturiko lanak egiten laguntzea.
- Ikaslearen portaeraren hobekuntzan lagundu eta gertatzen diren aldaketen jarraipena egin.
- Tutorearekin, telefonoz nahiz pertsonalki, bildu: astean behin-hamabostean behin-hilabete behin (ezabatu ez dagokiona)
- Ikaslearen ikastetxearekiko eta irakaslearekiko duen pertzepzioa hobetzen lagundu.
- Ikasleak Ikastetxean eta klasean duen jarrera hobetzeko, eta irakasleriaren jarraibideak betetzeko konpromisoa hartzen du.
- Ikastetxeko eta gelako arauak errespetatu.
- Besteak:

**IKASTETXEAREN ALDETIK**

- Ikaslearen falten edo eduki ditzaken elkarbizitza arazoaren eguneroko kontrola egin eta familiari berehala jakin arazi.
- Ikaslearen jarrera aldaketan jarraipena eta familiari berehala jakin arazi.
- Bere jarrera hobetzeko neurriak ezarri (zaintza-gelara joan, Orientazio Departamentuaren esku hartzea, bitartekaritza, eta abar...)
- Ikaslearen familiaren eta tutorearen arteko aldizkako bilerak .....
- Ikaslearen familiaren eta Orientatzailearen arteko aldizkako bilerak .....
- Ikaslearen arazoak konpontzeko beharrezkoak dituen gaitasunak eta baliabideak lantzeko plangintza berezia eskaintzea, Ikasketa Burutza, Tutorea, Orientatzailea eta irakasle taldearekin adostutakoa.
- Besteak:

Tutoreak konpromisoaren kopia bat Ikasketa Burutzan entregatuko du, Elkarbizitza Batzordearen hurrengo bileran horren berri eman dezan.

Tutoreak, hezkuntza talde guztiarekin batera, konpromisoaren jarraipena egingen du. Berau betetzen baldin bada konpromisoak indarrean jarraituko du eta kontrako kasuan Ikasketa Burutzari horren berri eman eta iraingiko da; beti ere aldaketa edo luzapen proposamenak Ikasketa Burutzari eta Orientatzaileari egin ahal izanen ditu, guzti honen berri familiari emanez.

Ikasleak edo/eta familiak konpromisoa betetzen ez badu, ikastetxeko Elkarbizitza Batzordeak dagozkion zuzenketak ezarriko ditu baldin eta ikaslearen portaera elkarbizitzarentzako kaltegarria izaten jarraitzen badu.

## **9. Ikasleak eskolara ez joateko taldeka hartutako erabakiak.**

1. Derrigorrezko bigarren hezkuntzako hirugarren mailatik aurrerako ikasleek eskolara ez joateko taldeka hartzen dituzten erabakiak ez dira justifikatu gabeko hutsegite gisa hartuko, baldintza hauek betetzen badira:
  - a) Hezkuntza arloko erabakiekiko desadostasunengatik izan bada.
  - b) Institutuko zuzendaritzan eta ordezkarien batzarrean aurkeztutako proposamena, deialdia egiten dutenek sinatutako idazki arrazoitu baten bidez. Idazkia hutsegitearen eguna baino gutxienez hiru eskola egun lehenago aurkeztu beharko da, eta deialdiaren arrazoiak, dei-egileak, eguna eta ordua aipatu beharko dira.
  - c) Proposamena Institutuan DBHko hirugarren eta laugarren mailetan eta derrigorrezkoaren ondoko irakaskuntzan matrikulaturik dauden ikasle guztien %15ek sinatu beharko dute gutxienez, edo DBHko hirugarren eta laugarren mailetan eta derrigorrezkoaren ondoko irakaskuntzan matrikulaturik dauden ikasleen ordezkarien %75ek. Proposamena aurkezten dutenek bertan garbi identifikatuko dute beraien burua eta, horrela bada, bereziki adieraziz daukaten ordezkaritza.
  - d) Ikasleek, irakasle arduradun baten aitzinean egindako bozketa sekretuaren bidez, eskolara ez joateko proposamena onartzea edo errefusatzea gehiengo osoz, ordezkariaren argibideak jaso ondoren erabakiko dute. Boto kontaketa eta gelako emaitza dagokion aktan bildu eta irakasle arduradun baten aitzinean sinatuko dira eta ikastetxeko zuzendaritzari jakinaraziko dizkio ordezkarien batzarrak, aurreikusitako jarduketak hasi baino bi eskola egun lehenago gutxienez.
2. Institutuko zuzendaritzak aztertuko du betebeharrak horiek betetzen diren eta, horren arabera, ebatziko du eskolara ez joate hori justifikatu gabeko hutsegitez hartzeko den edo ez. Ebazpen horren berri DBHko hirugarren mailatik aurrerako ikasleei, irakasleei, ordezkarien batzarrari eta Institutuko guraso elkartetako buruei jakinaraziko zaie idatziz. Era berean Institutuko zuzendaritzak idatziz familiei jakinaraziko die gauzatu diren gisa honetako ekimenak, beraien seme alaba dagoen taldean jasotako botazioaren emaitzak bereziki helaraziz.
3. Dena dela, Institutuko zuzendaritzak behar diren neurriak hartuko ditu eskolara huts egiteko erabakia betetzen ez duten ikasleek indarrean dagoen araudian aipatzen diren eskubideak erabili ahal izan ditzaten. Gisa honetan Institutuaren ohiko ordutegia mantenduko da eta irakasleak klasera bertaratuko dira beraien lan ordutegia betetz.
4. Ikasleek eskolara ez joatea taldeka erabaki duten egunetan materiari ez da aintzinatuko.
5. Ikasleak eskolara ez joatea taldeka erabaki duten egunetan programatutako azterketak ez dira egingen. Azterketa ikasle eta irakasleek adostutako egunetan egingen da, eta adostasunik ez badago iraskasgaiari dagokion hurrengo saioan egingen da.
6. Amaierako azterketak aintzineko paragrafoko trataeratik kanpo geldituko dira.



## **10. Ikasleriaren antolakuntza.**

### **10.1. Klaseko ordezkarien eginkizunak.**

Taldean ordezkarien lana da:

- Ordezkarien batzarraren bilkuretara joan eta deliberoetan esku hartzea.
- Ordezkatzen duten taldearen iradokizun eta erreklamazioak agintari akademikoari azaltzea.
- Bere taldeko ikasleen arteko harreman onak bultzatzea eta taldearen funtzionamenduaren inguruko gaietan tutoreari eta irakasle taldeari laguntzea.
- Institutuko irakasle eta buruekin lankidetzan aritzea, zentroaren funtzionamendua egokia izan dadin.
- Ardura hartzea, institutuko materialak eta instalazioak egoki erabil daitezen.

### **10.2. Klaseko ordezkariak, noiz eta nola hautatu.**

Ikasturteko urrian, ahal bada hirugarren astean, ikasle talde bakoitzak taldeko ordezkaria aukeratu du bozketa zuzen eta sekretuaren bidez. Ordezkariak ikasturte osoan jardunen du kargu horretan eta ikasleen ordezkarien batzarrean esku hartuko du. Era berean, ordezkariorde bat hautatuko da, ordezkaria falta edo gaixo denean ordezkaria dezan eta bestelakoetan ere haren eginkizunetan lagun diezaion.

Ikasketa-buruak antolatu eta deituko ditu ordezkari eta ordezkariordeen hautaketak. Horretarako, taldeko tutoreen eta Eskola Kontseiluko ikasleen ordezkarien laguntza izango du.

Tutoreek burutuko dituzte hauteskundeak eta ikasleen eskubideak, betebeharrak eta ordezkarien garrantzia azalduko diete.

Aipatutako hauteskundeak klase orduetan burutuko dira, ondoan adierazten diren arauari jarraituz:

Hauteskunde-mahaia honako kideak izanen ditu: lehendakaria (tutorea), idazkaria (ikaslerik gazteena) eta mahai kidea (ikaslerik zaharrena).

Botoa norbanakokoa eta sekretua izanen da.

Hautatua izanen da lehendabiziko botaketan erabateko gehiengoa lortzen duen ikaslea. Hau ez lortzekotan bigarren botaketa bat egingen da eta gehiengo sinplea lortzen duena aukeratu izanen da. Ez bada inor hau lortzen duenik, boto gehien lortu duten hiru ikasleen artean hirugarren botaketa bat egingen da, boto gehien lortzen duena aukeratu izanen da.

Ordezkariordea ordezkariaren ondotik boto gehien lortu duen hautagaia izanen da. Honen betebeharrak ordezkariari laguntzea eta honen faltan ordezkatzeta.

Ordezkaria eta ordezkariordearen izendapena ikasturte baterako da.

Ordezkariak eta ordezkariordeak hautatu zituen taldeko ikasleen gehiengo osoak bere esku izango du hautaketa hori baliogabetzea. Horretarako beharrezko izango da aldez aurretik tutoreari igortzea erabaki hori arrazoitzen duen txostena. Egoera hori suertatuz gero, hamabost eguneko epean egin beharko da beste bozketa bat, aurreko puntuan xedatutako guztia bete behar duena. Ordezkariak edo ordezkariordeak euren kargua uzten badute, prozedura berdinari jarraituko zaio.

### **10.3. Ordezkarien Batzarra: Eraketa, ordezkaritza eta eginkizunak.**

Bigarren Hezkuntzako institutuek Ikasleen Ordezkarien Batzar bat izanen dute, honela osatua: talde bakoitzeko ikasleek libreki hautatutako ordezkariak eta ikasleek Institutuko Eskola Kontseiluan dituzten ordezkariak.

Ordezkari Batzordeek ondorengo eginkizunak izanen dituzte:

- Aholku eta laguntza ematea ikastetxeko Eskola Kontseiluan ikasleen ordezkari direnei, zeinei helaraziko baitiete Batzordeak ordezkatzeko dituen ikasmaita, ikasgela, espezialitate edo adar bakoitzaren berriazko arazoa.
- Txostenak prestatzea ikastetxeko Eskola Kontseilatuarentzat, bai bere ekimenez, bai aipatu organo kolegiatuak eskaturik.
- Informazioa jasotzea ikastetxeko Eskola Kontseiluaren bilerekin buruz, behar den denborarekin, eta hartzen diren erabakien gainean, zabaldu eta ikasmaita guztietan aztertu ahal izan daitezen.
- Ikastetxeko ikasle guztiei beren jardueren berri ematea.
- Enpresetan egiten diren praktiketarako hitzarmenei buruzko informazioa jasotzea, eta horren segimenduan parte hartzea.

- f. Ikasgelara ez joateko deialdietarako proposamenak jaso era horren berri ematea ikastetxeko ikasle guztiei, bozketaren bidez onets edo gaitzets daitezen, eta ateratzen den emaitza eta ondorengo erabakia ikastetxeko Zuzendaritzari jakinaraztea.

Ordezkarri Batzordeko kideek ezin dute zehapenik jaso esleitzen zaizkien eginkizunetan jarduteagatik.

Ordezkarrien batzarra osoko bilkuran edo batzorde txikiagoetan elkartuko da. Azkeneko bide hau hartuko da arazoan izaera berezia dela eta, institutuko ikasmila edo hezkuntza etapa bateko ordezkariak biltzeko.

Osoko bilkuran elkartutako ordezkarien batzarrari edo horren zeinahi batzorderi entzutea eman beharko diote institutuko kide bakarreko gobernu organoek, batzarrak hala eskatzen badu eta arazoek ikasleak zuzenean ukitzen badituzte.

Ikasketa-buruak toki egoki bat eskainiko dio ordezkarien batzarrari bilkurak egiteko, baita ongi aritzeko baliabide materialak ere.

Ikasleek eskubidea dute, Ordezkarri Batzordeko kideengandik eta ikasle elkartearen ordezkariengandik informazioa jasotzeko, bai norberaren ikastetxeari dagozkion gorabeheri buruz, bai beste ikastetxeei dagozkienetan, baldin eta ikastetxeko ekitaldien ohizko iharduna galarazten ez bada.

#### **10.4. Ikasleen ordezkarietza Institutuko Eskola Kontseiluan.**

Ikasleek Eskola Kontseiluan dituzten hiru ordezkariak institutuan matrikulatutako ikasleek hautatuko dituzte. Eskola Kontseilua azaroa eta abenduan partez berrituko da, ohiko bidean bi urtetik behin eta bete gabe egon daitezken lekuak osatzeko ezohiko moduan urtero.

Hauteskunde Mahaiaik honako kideak izanen ditu: institutuko zuzendaria, mahaiburu arituko baita, eta zozketaz ateratako bi ikasle. Ikaslerik zaharrenak eginen ditu idazkariaren lanak.

Bozketa zuzena, sekretua eta delegaezina izanen da. Ikasle bakoitzak gehienez bi izen paratuko ditu bere boto paperean, hautatu beharrak hiru direnean, eta izen bakarra ordezkari bat edo bi aukeratu behar direnean. Bozketa egiteko Hauteskunde Batzordearen jarraibideak begiratuko dira.

Zilegi izanen da institutuko ikasleen elkarte legez eraturiko batek proposatutako edo hamar hautesleren sinadurak abalaturako ikasleak bozketaren gainbegirale aritzea.

#### **10.5. Ikasleen elkarteak.**

Ikasleek elkartzeko eta elkarte, federazio eta konfederazioak eratzekeo eskubidea izango dute. Batasun horiek laguntzak jaso ahalko dituzte indarra duen legerian aurreikusitakoaren arabera.

Institutuetako Ikasleen elkartei honako eskumenak aitortzen zaizkie:

- a) Eskola Kontseiluari Hezkuntza Proiektua, Urteko Programazio Orokorra eta Barne-araudia egin eta aldatzeko proposamenak aurkeztea, beti ere klaustroari dagozkion irakaskuntza eta pedagogia arloetako alderdiak errespetatuz.
- b) Jarduera osagarri eta eskolaz kanpokoetarako proposamenak egitea. Onartzen badira Urteko Programazio Orokorrean jasoko dira.
- c) Ikastetxearen jardunaren gainean egoki iruditzen zaizkien xehetasunak Eskola Kontseiluari jakinaraztea.
- d) Eskola Kontseiluaren informazioa jasotzea, Kontseiluan jorratutako gaii buruz, eta gai zerrenda ere bai, bilkura egin baino lehen, proposamenak prestatzeko aukera izan dezaten.
- e) Institutuko instalazioak erabiltzea, indarra duen araudiak ezarritako baldintzetan.
- f) Ikasleen eskubide eta betebeharrak buruzko araudian ezarritako dauden eskumen eta eginkizunak.

#### **10.6. Ikasleen bilkurak Institutuan.**

Ikasleak ikastetxean bildu ahalko dira eskolako zein eskolaz kanpoko jarduerak burutzeko eta, halaber, hezkuntza edo prestakuntza osatzeko helburua duten bestelakoetarako.

Ikastetxeetako zuzendariak eskubide hortaz baliatzeko behar diren lokalak jarriko dituzte eskura, baina beti ere, jarduera horiek egin beharko dira ikastetxeko jardueren garapena errespetatuz eta edozein kasutan klaseko ordutegitik kanpo.

**11. Familientzako elkarbizitza araudia.**

ELKARBIZITZAREN AURKAKO PORTAERAK	HEZKUNTZA NEURRI ZUZENTZAILEAK	PROZEDURA ETA NEURRIAREN ARDURADUNA
<p>1. Ikastetxearekin zuzeneko eta etengabeko harreman arina ez izatea eta ez erraztea.</p>	<p>a. Ikastetxeko Zuzendaritzak guraso edo legezko ordezkariekin bilera bat burutuko du parte hartze konpromezu bat adosteko.</p> <p>b. Ikastetxeko Zuzendariak murrizten ahalko die, guraso edo legezko ordezkariari, Ikastetxeko instalazioetan sartzea, gehienez 15 eskola egunetarako.</p> <p>c. Ikastetxeko Zuzendariak, guraso edo legezko ordezkariari, Hezkuntza Komunitateko kide batekiko komunikazio pertsonala murriztu diezaieke.</p>	<p>a. Tutoreak, guraso edo legezko ordezkariak, Ikastetxeko Zuzendaritzarekin izan duten bilera batera deituko ditu.</p> <p>b. Ez-betetze larri edo errepikatuak gertatzen badira, Zuzendaria guraso edo legezko ordezkariarekin bilduko da eta idatziz jakinarazkiko dio hartutako neurria zein den eta noiz gauzatuko den.</p> <p>c. Ez-betetze larri edo errepikatuak gertatzen badira, Zuzendaria guraso edo legezko ordezkariarekin bilduko da eta idatziz jakinarazkiko dio hartutako neurria zein den eta komunikazio bide berria zein izango den.</p>
<p>2. Irakasleen agintea eta ikastetxeko arauak ez errespetatzea eta beren seme-alabei hori ez errespetatzea.</p>	<p>a. Ikastetxeko Zuzendaritzak guraso edo legezko ordezkariekin bilera bat burutuko du parte hartze konpromezu bat adosteko.</p> <p>b. Ikastetxeko Zuzendariak murrizten ahalko die, guraso edo legezko ordezkariari, Ikastetxeko instalazioetan sartzea, gehienez 15 eskola egunetarako.</p> <p>c. Ikastetxeko Zuzendariak, guraso edo legezko ordezkariari, Hezkuntza Komunitateko kide batekiko komunikazio pertsonala murriztu diezaieke.</p>	<p>a. Tutoreak, guraso edo legezko ordezkariak, Ikastetxeko Zuzendaritzarekin izan duten bilera batera deituko ditu.</p> <p>b. Ez-betetze larri edo errepikatuak gertatzen badira, Zuzendaria guraso edo legezko ordezkariarekin bilduko da eta idatziz jakinarazkiko dio hartutako neurria zein den eta noiz gauzatuko den.</p> <p>c. Ez-betetze larri edo errepikatuak gertatzen badira, Zuzendaria guraso edo legezko ordezkariarekin bilduko da eta idatziz jakinarazkiko dio hartutako neurria zein den eta komunikazio bide berria zein izango den.</p>
<p>3. Eskola Komunitateko kide guztiek dagozkien eskubide eta eginbeharrak erabat erabili ahal izateko eta errespetua sustatzeko lanean ez laguntzea.</p>	<p>a. Ikastetxeko Zuzendaritzak guraso edo legezko ordezkariekin bilera bat burutuko du parte hartze konpromezu bat adosteko.</p> <p>b. Ikastetxeko Zuzendariak murrizten ahalko die, guraso edo legezko ordezkariari, Ikastetxeko instalazioetan sartzea, gehienez 15 eskola egunetarako.</p> <p>c. Ikastetxeko Zuzendariak, guraso edo legezko ordezkariari, Hezkuntza Komunitateko kide batekiko komunikazio pertsonala murriztu diezaieke.</p>	<p>a. Tutoreak, guraso edo legezko ordezkariak, Ikastetxeko Zuzendaritzarekin izan duten bilera batera deituko ditu.</p> <p>b. Ez-betetze larri edo errepikatuak gertatzen badira, Zuzendaria guraso edo legezko ordezkariarekin bilduko da eta idatziz jakinarazkiko dio hartutako neurria zein den eta noiz gauzatuko den.</p> <p>c. Ez-betetze larri edo errepikatuak gertatzen badira, Zuzendaria guraso edo legezko ordezkariarekin bilduko da eta idatziz jakinarazkiko dio hartutako neurria zein den eta komunikazio bide berria zein izango den. izango den.</p>

**12. Elkarbizitzaren Batzordea.**

Ikastetxe guztietan eratuko da bizikidetza batzordea, ikastetxeko zuzendariak izendatuta.

Oro har, honela osatuko da bizikidetza batzordea:

Zuzendaria edo hark zuzendaritza taldean izendatzen duena.

Ikastetxeko bizikidetzaren ardura duen irakaslea.

Ikastetxeko beste irakasle bat, bizikidetzan prestakuntza duena.

Orientatzailea.

Batzordeak, bere eginkizunak betetz, guraso elkarteko ordezkari bat sartzen ahalko du batzordean.

Bere eginkizunak betetzeko, bizikidetza batzordea ikastetxeko organoekin koordinatuko da, halako moduan non denek hartuko baitute parte urteko jarduerak prestatzen eta abian jartzen. Bizikidetza batzordeak eginkizun hauek ditu:

a) Bizikidetza planari lotuak.

a.1) Bizikidetza plana diseinatu eta bere urteko zehaztapenak, urteko programazio orokorrean sartuko direnak, denen artean prestatzeko prozesuaz arduratzea.

a.2) Bizikidetza plana eta bere urteko zehaztapenak prestatzeko proposamenak jaso eta sortzea.

a.3) Bizikidetzaren egoera ezagutzeko aldiari behineko azterlanak programatu, bultzatu eta burutzea, baita bizikidetza planaren urteko ebaluazioa ere, eta behar diren hobekuntzak proposatzea.

a.4) Bizikidetza planaren aplikazioaren berri ematea hezkuntza komunitateari.

a.5) Urteko zehaztapenaren memoria prestatzea.

b) Bizikidetzarako erregelamenduari lotuak.

b.1) Bizikidetzarako erregelamendua berrikusten laguntzea.

b.2) Bizikidetzarako erregelamendua ikastetxean aplikatzeko jarduketari buruzko informazioa bilatu eta iradokizunak egitea, bidezkoa denean.

c) Prestakuntzari eta aholkularitzari lotuak.

c.1) Hezkuntza komunitateari aholku ematea bizikidetzaren arloan, eta prestakuntza jarduerak bultzatzea, bai irakasleentzat bai hezkuntza komunitatearen gainontzekoentzat, gai horretan.

c.2) Bizikidetzarako hezkuntza arlo eta irakasgaien curriculumean sar dadin proposatzea.

c.3) Zuzendaritzari aholku ematea erabakiak hartzeko orduan, bizikidetzaren kontrako jokabideen edo harentzat oso kaltegarriak direnen aurrean hezkuntza neurriak hartzeko.

d) Bitartekotzari lotuak.

d.1) Bitartekotza taldeak sortzea eta haien funtzionamenduaz arduratzea.

d.2) Bitartekotza formaleko prozesuak antolatzea, indarrean dagoen araudian ezarritakoaren arabera.

### **13. Elkarbizitzaren irakasle arduradunak.**

Ikastetxeko bizikidetzaren arduraduna bizikidetzari dagokion guztia dinamizatzen ariko da, bai aurreneurrien aldetik bai hezkuntza aldetik.

Ikastetxeko zuzendaritzak arlo horretan prestakuntza duen pertsona bat edo bi izendatuko du bizikidetzaren arduradun. Orobat, ikastetxe publikoko zuzendariak orduen banaketa hartzen ahalko du kontuan, ikastetxean dauden aukerak ikusita.

Hauek dira ikastetxeko bizikidetzaren arduradunaren eginkizunak:

- a. Bizikidetzaren batzordea eta bere ekintza eta proiektuak dinamizatzea.
- b. Bizikidetzaren plana prestatzen, ezartzen, ebaluatzen eta eguneratzen parte hartzea, baita hezkuntza komunitatea inplikatze mekanismoetan ere, ezinbestekoa baita hura garatzeko, abiarazteko, ebaluatze eta urtean zehar gauzatzeko.
- c. Ondokoak antolatzea bizikidetzaren esparruan: ikasleen prestakuntza eta parte hartze aktiboa, prebentzioa eta estrategia zehatzak ezartzea gatazkak konpontzeko, eta hezkuntza komunitateko agenteen inplikazioa.
- d. Irakasleen arlo honetako prestakuntza bultzatzea, eta bizikidetzaren arduradun gisa duen prestakuntza eguneratzea; orobat, ikastetxeko beste talde batzuen bizikidetzaren arloko prestakuntzaz arduratzea.
- e. Zuzendariari laguntza eta aholkuak ematea, bizikidetzarako arautegia aplikatzeko.
- f. Ondoko dokumentuez arduratzea: ikastetxeko bizikidetzaren plana; haren urteko zehaztapenak, non arduradunaren lanerako plana egon behar baita, eta urteko memoria.